

Herririk Herri | 2

Lau egunean bi biderrez lapurtu dituzte kobre-kableak Elorrión



Berbaz | 8

I. Madariaga: "Guk ez. Ertzainek sortu zuten desordena Urbinan"

Kultura | 11

Sarrionandia familiak zuzenketa egiteko eskatu dio Eusko Jaurlaritzari

ABADIÑO | 2

Hildako eta zauritutako lankideengatik protestan

Lan istripua gertatu zen Estampaciones Bizkaia enpresan martitzenean

Elkarretaratze jendetsuan bildu ziren beharginak, eguaztenean, enpresa aurrean



Kontzentrazioan enpresa komiteko ordezkari guztiak egon ziren; LABek 11 ditu eta ELA, UGT eta CGTK bina. Kepa Aginako

DURANGO | 3

Herritarren kezka ikusirik, neurriak hartu ditu ETSk

Eusko Trenbide Sareak dioenez, oinezkoen segurtasuna ez da arriskuan egon, "hesiak goian zeudela trenak gelditu egiten zelako". Neurriak hartu dituzte arazoa konpontzeko.



GEHIGARRIA



Mallabia | 6

Plan orokorraren proposamena aho batez onartu du plenoak

Zaldibar | 4

Talde politikoen diru-izendapena kendu gura du Bilduk

Atxondo | 7

Hainbat ekitaldi prestatu dituzte zapatuko kulturarteko jairako

Elorrio | 7

Ordenantza fiskalak izoztea onartu dute udalbatzarrean

Altzariak Dekorazioa

Bilbo etor. 9 behea
48250 Zaldibar
Tel.: 946 22 50 74

www.maderlandecoracion.com

maderlan

HERRIRIK HERRI>

▣ **ABADIÑO**

Kontzentrazio jendetsua lan istripua salatzeko

Estampaciones Bizkaian langile bat hil eta beste bat zauritu zen martitzenean jazotako lan istripuan

Makina paketatzaileak harrapatuta, martitzenean langile bat hil zen eta beste bat larri zauritu zen Abadiñoko Estampaciones Bizkaia enpresan. Lan istripua salatzeko komiteak deitutako kontzentrazioan 700 bat lagun batu ziren *Las istripu gehiagorik ez. Aski da* lelopean.

Kontzentrazioaren aurretik langile guztiekin batzartu ziren:

700 bat lagun batu ziren kontzentrazioan 'Lan istripu gehiagorik ez. Aski da' lelopean

“Batzar hori langileak jazoeraren gainean informatzeko erabili dugu, eta ez da beste ezelako erabakirik hartu”, adierazi zuen Aitor Iturriagak enpresa komitearen ize-nean. Enpresak 580 langile ditu eta inguruko enpresetako delegatuak ere egon ziren kontzentrazioan.

Zauritutako langilearen egoerari buruz adierazi zutenenez, “ezker hankan behatz bi moztu dizkiote eta eskumakoan anputazio handia jasan du”.

Iturriagaren esanetan, “gaur istripua salatzeko batu gara hemen, eta aste honetatik aurrera beste prozesu bat hasiko da:



Martitzenean, 12:00etan, orduerdiz batu ziren Estampaciones Bizkaia enpresaren aurrean. K. Aginako

Osalanen txostena ikusi beharko da, Ertzaintzaren atestatua ere hor dago, senitartekoek abiatutako prozedurak ere egongo dira... Labur esanda, hemendik aurrera hasiko da erantzukizunak norenak diren argitzeko prozesua. Guk, oraingo, diogun bakarria da maki-

nek prest egon behar dutela langileak barruan badabilta automatikoki geratzeko”.

Kontzentrazioan enpresa komiteko ordezkari guztiak egon ziren: LAB sindikatuak 11 ordezkari ditu, eta ELA, UGT eta CGT sindikatuek bina. Istripuaren egu-

nean hasi eta 24 orduan lan uztea egin zuten enpresako langileek, eta eguaztenean 14:00etako txandan itzuli ziren lanera.

Abadiñoko Ezker Abertzaleak ere lan istripua salatu zuen, eguaztenean Traña-Matienan egindako kontzentrazioan. ■ J. Derteano

Inauguratu dute erabilera anitzeko eraikina Traña-Matienan

Alkateak eta Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko ordezkariak moztu zuten inaugurazioko zinta

Joan zen bariku eguerdian inauguratu zuten Traña-Matienako erabilera anitzeko eraikina. Auzoko eskolako eta institutuko ikasle eta irakasleak eta guraso elkarteak kideak gonbidatu zituzten inaugurazio ekitaldian parte hartzera.

Aureskua eskaini zuten Iluntze dantza taldekoek ekitaldiaren hasieran, Jose Luis Navarro alkateak hartu zuen berba ondoren, eta Traña-Matienako eskolako eta institutuko taldeen arteko futbito partidagaz eman zuten inaugurazio ekitaldia amaitutzat.

Eraikin hori “urteetan Traña-Matienako gurasoen eskaria” izan dela azpimarratu zuen Navarro alkateak. “Erabilgarri daukagu dagoeneko: goza ezazue”, adierazi zuten bertaratutakoek.

Futbitoan, boleibolean eta saskibaloian jokatzeko baldintza homologatuak dauzka, Alko udal gobernua berbetan, eraikin berriak. Ohar batean azaldu duteenez, baina, “eraikinaren erabilera arautuko duen ordenantza pres-tatzerakoan, lehentasuna eskola-ren beharrei” emango diete. ■ I.E.



Alkatea eta Hezkuntza saileko ordezkaria, inaugurazio ekitaldian.

▣ **OTXANDIO**

Zaborrontzien inguruak garbi mantentzeko neurriak hartu dituzte

Altzariak jasotzen dituen enpresak ezarritako egunak errespetatzeko konpromisoa hartu du

Herrian zehar banatuta dauden zaborrontziak “geroago eta zikina-go” daudela eta, horren aurrean neurriak hartzen hasi da udala.

Egoera horretara heldu izateko, hainbat erantzule ikusten dute. Batetik, udalak autokritika egin du: “Gure gain hartzen ditugu zabor bilketaren gestioan izandako hutsuneen ondorioz sortutako arazoak”. Bestetik, “jakin badakigu, bolumen handiko zakarrak eta altzariak, egunean bertan jaso beharrean, berandu jaso direla”. Ondorioz, udaleko hain-

bat ordezkari “urgentziaz” batzartu da bolumen handiko zakarrak batzeaz arduratzen den SCOR enpresagaz, eta enpresa horrek zabor bilketarako ezarritako egunak “errespetatzeko konpromisoa” hartu du.

Hala ere, udalak herritarren kooperazioa eta laguntza ere eskatu du: “Zaborrontzi inguruetan, askotan, kontenedore barruetan lekua egonda ere kartoiak kanpoan uzten dira, eta altzariak edozein egunetan eta edozein lekutan uzten dira”. ■ J.D.

Alkatearen liberazio partziala onartu dute udalbatzarrean

Alkatearen heren bateko liberazio partziala onartu dute udalbatzarrean. Proposamenak aldeko zazpi boto jaso ditu, eta zinegotzi bi abstenitu egin dira. “Horrek alkatearen gutxiengo dedikazio bat bermatzen du, eta lana, udala eta familiaren arteko

uztarketa erraztuko du”, azaldu dute udal ordezkariak.

Horrela, “udalaren jarraipen estuagoa egin ahal izatea, Diputazioan nahiz Eusko Jaularitzan egin beharreko kudeaketei arreta handiagoa eskaintzea eta alkate lana eramangarriagoa egitea ahalbidetuko du”.

Dedikazio horrek izango duen diru ordaina bere lanean galduko duena beste izango dela adierazi dute, eta, beraz, Santi Uribe alkateak bere jardun profesionalean zeukan soldata berdina mantenduko du. ■ J.D.

▣ **BERRIZ**

‘Iraultza barrutik’ mintegiari hasiera emango diote gaur

Gaur hasi eta abenduaren 16a bitartean, *Iraultza barrutik* izeneko mintegia garatuko dute Berrizen. Udaleko Berdintasun Sailak bultzatu du egitasmoa, eta jabekuntza eskolako ikasleez gainera, edozein emakumek parte hartu ahal izango duela informatu dute antolatzaileek.

Edozein emakumek parte hartu ahal izango duela jakin eragin dute

Norberaren eta taldearen jabekuntza eskuratzea izango dute helburu

Erreferentziatzen Gloria Steinemen *Iraultza Barrutik (autoestimua gainezko liburu bat)* lana hartuta eta emakumeen subjektibitateki abiatuta, norberaren eta taldearen jabekuntza eskuratzea izango dute helburu, azaldu dutenez.

Miriam Herbón feminista eta emakumeenganako indarkerian adituak gidatuko ditu saioak. Kultur Etxean elkartuko dira partaideak, barikuetan, arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara bitartean. ■ M.O.

DURANGO

Trena datorrela hesiak beti jaitsita egoteko neurriak hartu ditu ETSk

Euskal Trenbide Sarea: “Oinezkoendako ez zegoen arriskurik, baina ulertzen dugu kezka eragin izana”

Joan zen astean, trenaren Ezkurdiko pasabidean, hesiak behean eta trena bazetorrela, hesiak bat-batean igo ziren. Trena minutu erdian hesien ertzean geratuta egon zen, harik eta berriro igo zituzten arte. Horren ardura duen Euskal Trenbide Sareak gertakariaren agiria eskatu dio asteon Durangoko kontrol postuari; agiri horrek jasotzen duenez, “horrelako gertakari bat baino gehiago jazo da, doiketa arazo bat medio”, ETSko ordezkariak adierazi dutenez. Arazo hori dagoeneko konponduta dagoela diote, eta “printzipioz ez da gehiagotan gertatuko”.

Euskal Trenbide Sareak onartu duenez, “bi-hiru bider gertatu da hesiak goian egon eta trena noiz jaitsiko zain egon beharra; beste behin, hesiak goian egonagatik,

Bi-hiru bider hesien ertzean geratu da trena; behin bidea gurutzatu ere egin zuen

trenak aurrera egin zuen, beti ere oinezkoen erritmoan”.

Hala ere, oinezkoen segurtasuna une batean ere ez dela arriskuan egon azaldu dute: “Hesiak goian daudenean prozedura berezia martxan jartzen da, eta trena geratu egiten da semaforo gorria ikusita”. Horregatik, oinezkoen segurtasuna ez zuten ez arriskuan ikusten, gertakari horiek ez dira jaso izan orain arte.

ETS: “Doiketak eginda daude, eta printzipioz ez da berriro arazorik sortuko hesiekin”

ETSren esanetan, oinezkoen artean “kezka eta konfiantza falta” sortu dezakeela ikusita, erabaki dute esku hartzea: “Doiketa informatikoa eta manuala izan da, bietatik izan du; ez luke berriro gertatu behar”. ■ J. Derteano.

> Bideoa: www.anboto.org

Kobika jatetxeko pintxoak Euskadiko onenen artean

‘Euskadi, dasta ezazu’ txapelketan Eusko Labelen ataleko saria lortu dute ‘Island’s egg’ pintxoagaz

Durangoko Kobika jatetxeak pintxoaren Euskadiko Txapelketako finala jokatu du asteon, eta *Island’s egg* izeneko pintxoak sari bat lortu du. Hain zuen ere, Eusko Label produktuekin osatu beharreko pintxoaren atalean saritu dute.

Iñigo Kortabitarte sukaldariak azaldu duenez, “mundu oso-ko etxetan dauden produktuak erabili ditugu; zelanbait esanda, arrautza eta txorizoa lako produk-

tuekin osatutako plater tipikoa mokadu txikira eroan dugu”.

Kobikak eguen iluntzeetan eskaintzen duen ‘Txapelketako Pintxoak’ izeneko menuan sartuko dute pintxo irabazlea. Jatetxeko bost pintxo onenekin batera, ardo zuri, beltz, ur eta postreak osatzen dute 20 euroko menua.

Kobikak iaz Espainiako Txapelketan ere parte hartu zuen, eta aurtengo hori dute helburu. ■ J.D.



Laster izango den Espainiako Txapelketan egotea du helburu Kobikak.



ETSk gertakariaren agiria eskatu dio asteon Durangoko kontrol guneari.

2011/2012 IKASTURTEA

IKASTAROAK DOHAINIK LANGILE ETA LANGABETUENDAKO

PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRI BERRIAK

LANGILEEI ZUZENDUAK

KATALOGO MODULAR BERRIA

PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIA	PRESTAKUNTZA MODULUAK	PRESTAKUNTZA UNITATEAK	ORDUAK
TXIRBIL HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA	Txirbil harroketa bidezko mekanizaketan dauden mahinen eta sistemen prestatzea eta programatzea	Fabrikazio prozesu osagarriak txirbil harroketa bidezko mekanizaketan	70
	Txirbil harroketa bidezko mekanizazioa	Mekanizazio prozedurak txirbil harroketa bidez	80
		CNC programaren egiaztapena eta doikuntza txirbil harroketa bidezko mekanizaketan	70
		Txirbil harroketa bidez mekanizatutako produktuen eragarrimen egiaztapena	30
		(Zeharkakoa) Ingurugiro eta lan arriskuen prebentzioa txirbil harroketa bidezko mekanizaketan	30
TUTUEN INSTALAKUNTZEN FABRIKAZIOA ETA MUNTATzea (Profesionaltasun ziurtagiri osoa)	Tutuen trazaketa eta mekanizaketa	Tutuen fabrikazioaren planoen interpretazioa	50
		Tutuen garapenaren trazaketa	40
		Tutuen mozketak eta mekanizazioa	60
	Tutuen konformazioa eta antolaketa	Konformazioa eta kurbatzea tutuen fabrikazioan	40
		Tutuen muntatzea	70
MENPEKO PERTSONEN ARRETA-SOZIOSANITARIOA INSTITUZIOETAN (Gaitasunaren egiaztapen-erako balagarriak)	Instituzioetako erretzen antolakuntza laguntza	Tutuen muntatzearen antolaketa eta garapena	60
		Tutuen muntatzea eta euskarriaren muntatzea	50
		Tutuen muntatzearen soldadura	80
IBILGAILUEN KARROZERIKO ESTRUCTURAREN MANTENTZE LANAK	Instituzioetako arreta-soziosanitarioren bitartekotza	Tutuen muntatzearen soldadura	80
	Elementu finkoak	(Zeharkakoa)Elementu finkoen desmuntzea eta banatzea	60

DOAN

KATALOGO MODULARRETIK KANPO:

Posizio horizontaleko TIG soldadura

Beste posizio batzuetako TIG soldadura

Gas fluoratuak maneiatzeko baimena

Karretila jasogailua gidatzeko baimena

Soldatzaileen Homologazioa

50

50

40

20

60

DOAN

LANGABETUENTZAKO

Geriatzia laguntzarako zaintzak

Txirbil harroketa bidezko mekanizazioa

Karrozzeria

Giro naturaleko soldadura

354

468

400

443

ETXEBARRI AUZOA, ZG / Z2PL
20550 ARETXABALETA (GIPUZKOA)
WWW.IARETXABALETA.COM

IA@IARETXABALETA.COM
T. 943 797 900 / 943 797 943
F. 943 770 955

DURANGO

Etorkinei hizkuntza ikasten lagunduko dien programa abian

Programa hau atzerritarren alfabetatze eta hizkuntza-ikasketa prozesuetan laguntzeko asmoagaz ipini dute martxan. Halaber, kulturen arteko sustapen gunea izatea ere badu helburu.

Hizkuntzaren aldetik, harreara egiteko programa da, hizkuntza ikasi eta erabiltzeko hartu-emanetarako giro informaletan. Progra-

Etorkinei hizkuntza ikasketa prozesuan lagunduko die 'Hitz egidazu' programak

ma honetan alfabetatze prozesuei ikuspegi bitatik helduko diete. Batetik, hezkuntza ikuspegitik, helduen hezkuntzarako ikastetxeen, euskaltegien eta hizkuntza eskola ofizialen alfabetatze-ikastaroen bitartez. Bestetik, etorkinen eta bertakoen arteko bikote linguistikoak eratzea bultzatuko dute, hizkuntzaren alderdi informalak ikasteko eta ahozko berba-jarioa bizkortzeko. ■ J.D.

Asteburuan 6.000 bat lagun gerturatu dira Duranwop jaialdira

Jaialdiaren erantzunagaz pozik, datorren urtean hiru Durangoetan egitea aztertzen dabilta

Gaixotasun neurodegeneratibo enkeretarako Walk On Project (WOP) ekimenak 6.000 lagun inguru batu ditu asteburuan Landako Gunean eta Plateruenean antolatutako ekitaldi eta kontzertuetan. Duranwop-eko antolatzaileek balorazio positiboa egin dute.

Lehenengo Duranwop honen ondoren, jaialdia urtero antolatze-ko asmoa agertu dute ekimenaren sortzaileek. Baliteke, gainera, datorren urtean Mexikoko eta AEBetako Coloradoko Durangoetara zabaltzea Duranwop; antolaketarako hartu-emanetan hasi dira dagoeneko. Bazkaria, umeentzako jolasak, antzerkia... ekital-

Gaixotasun degeneratibo enkereta sustatzeko helburua du Walk On Project ekimenak

di ugari egon da, zapatuan, batez ere, egunean zehar, baina asteburuko protagonista nagusia musika izan da. Asteburuan hamalau talde igo ziren Landako Gune-ko oholtzara; tartean, Aurora Bel-

Asteburuan ia 200 bolondres ibili dira antolaketa eta muntaketa lanetan laguntzen

tran, Loquillo, Elliot Murphy, Gari, Steve Wynn, M-Clan eta Ariel Rot. Antolatzaileek eskerrak eman gura izan dizkie beharrean egon ziren ia 200 bolondarioei.

WOPeko kideak pozik azaldu dira bertaratutakoek jaialdia "emozio eta samurtasunaz bizi izan zutelako". ■ A.U.

> Bideoa: www.anboto.org



WOP Band & Friends taldearen kontzertua. A.U.

IURRETA

Abadetxea konpontzeko egitasmoa landu dute

Abadetxerako errehabilitazio egitasmo bat aurkeztu du Bilboko gotzaindegiak Udalean

Abadetxea errehabilitatzeko egitasmoa aurkeztu du udalean Bilboko gotzaindegiak, Iñaki Totrikaguena alkateak baieztatu duenez. Egitasmoa aztertu behar du Udalak, baina, alkateak dionenez, argi dute lanak ezin direla teila-tua konpontzeramugatu: "Abadetxea mantendu behar bada, modu onean mantendu behar da".

Abadetxea 2006an erre zen; orduan, Gazte Asanbladak erabiltzen zuen

Gazte Asanbladak okupatuta zuen Abadetxea 2006an erre zen. 2007an Udalak osorik bereganatzeko asmoa agertu zuen, baina, iazko otsailean, eraikina erosi eta berritzeko asmoa alboratu egin zuen, etorkizuneko erabilerari begira ez zutelako "funtzional" ikusten: gotzaindegiak, jabea izanik, eraikina konpontzea edo eraistea izan du harrezkero aukeran. Udalak abiatuta du, baina, hondamen-espediten-tea, "izan ere, eraikina ezin da horrela mantendu eta gotzaindegiak berak bota ezean udalak bota beharko du". ■ A.B.



Gazte Asanblada izan zen azkena Abadetxea erabiltzen. K. Aginako

ZALDIBAR

Talde politiko enkeren diru-izendapena kendu egin gura du Bilduk

Onartuz gero, zinegotzi bakoitzarentzako dietak bakarrik jasoko lituzkete

Berez joan zen asteko udalbatzar-erako aurreikusita bazegoen ere, azkenean hurrengo batzarren baten eztabaidatu beharko dute gobernu taldeak aurkeztutako proposamena, alderdien diru-izendapena kentzea zehazten duena. Tramite eta epeen arazoengatik atzeratu behar izan dute, azaldu digutenez, eta oraindino ez dakite noiz landu ahal izango duten, Arantza Baigorri alkateak jakin eragin duenaren arabera.

Bilduren egitasmoak aurrera egingo balu, zinegotziek euren dietak jasoko lituzkete bakarrik, alderdiei dagokiena kenduta. "Legeak, zinegotzi bakoitzaren soldataz aparte, talde bakoitzari gehigarri bat ematea ahalbidetzen

Oraindino ez dakite proposamen hori noiz landu ahal izango duten, Arantza Baigorri alkatearen arabera

Baigorri: "Legeak talde bakoitzari gehigarri bat ematea ahalbidetzen du, eta horixe da kendu gura duguna"

du, eta horixe da kendu gura duguna", adierazi digu Baigorri.

PPren mozioa

Udalbatzar horretako gai-ordetik beste bi puntu ere baztertu zituzten hasi aurretik: Bildu eta PPren mozio bana. PPk ETaren historia gaitzestea helburu duen mozioa erregistratu zuen uztail-ean, EAEko hainbat herritan egin zuen lege. Horren aurrean, PSE-EEK emendakina sartu zuen, eta Bilduk beste mozio bat prestatu zuen; "beste egoera batean gauden, eta PPrenak soilik zati bat hartzen du kontutan", azaldu dute. Alkatearen ekimenez, guztiak ados jarri dira testu bateratu bat adosten saiatzeko. ■ M.O.

Biharko deitu du udalak lehenengo herri-batzarra

Udalaren egoeraren gaineko azalpenak emango ditu gobernu taldeak, 17:00etan hasita

Zaldibarko Udalaren egoera eza-gutzeko aukera edukiko dute bihar herritarrek, administrazioak herri-batzarrerako deialdia egin du eta. Arratsaldeko 17:00etan hasiko da bilkura Olazar pilotalekuan, azaldu dutenez. Gainera, egoera-

Udaleko gobernu taldeak aurrera begira dituen asmoak azaltzeko ere aprobetxatuko du biharko batzarra

ren azterketa argitaratzea ez eze, gobernu taldeak aurrera begira dituen asmoak azaltzeko ere aprobetxatuko du.

Maiatzaz geroztik -legegintzaldi berria hasi zenetik- informazioa batzen eta aztertzen ibili da Bildu. "Zaldibartarrek behin eta berriz galdetu izan digute udaleko egoerari buruz", diote. Bilduk programan horren berri emango zuela "agindu" zuen, eta biharkoa da horretarako lehenengo pausua; "parte-hartzeari hasiera" eman gura diote. Arantza Baigorri alkateak herritar guztiak gonbidatu ditu batzarrera. ■ M.O.

EUSKADIN KALITATEAREN IKURRA K HIZKIA DA



ARABAKO PATATA

EUSKO LABELA DUEN ARABAKO PATATAREN GARAIA GAUDE BETE-BETEAN
Eusko Labela duen Arabako Patataren denboraldia hasi da eta lehenengo estimazioaren arabera kanpaina ona izatea espero da bai kalitateari zein kantitateari dagokienez. Iaz Eusko Labela izena emanda duten 15 ekoizlek ia 3 miloi kilo merkaturatu zituzten eta beraz, aurten ere espero da ekoizpen horren inguruan ibiltzea.

Arabako Patata: kalitate goreneko patata

Klimari, lurrari eta tradizioan oinarritutako laboreari esker, gaur egun, Arabako Patata goren-goreneko kalitatezko elikagaitzat hartzen du kontsumitzaileak.

Eusko Label-Kalitateak, ezarri diren kalitate-azterketak gainditzen dituzten patata motak soilik babesten ditu. Ingumenarekiko errespetu osoz erein, hazi eta bildu ondoren, patatarik onenak hautatzen dira kontsumitzaileari elikagai osasungarria, homogeneoa eta kalitatezkoa eskaintzeko.

Arabako Patataren araudian, hainbat patata mota daude onartuta, baina batez ere bi dira nagusiki merkatuan: Monalisa eta Kenebeck.

Monalisa patata belaunaldi berrien patata da, itxura leun eta garbia duena. Barrutik eta kanpotik hori kolorekoa da; frijitzeko eta mikrouhinerako oso aproposa da. Patata mota hau 2,5 kiloko sareko poltsa horietan aurkezten da.

Kenebek barietatea Araban oso errotua dago eta tradizio handia dauka. Azala kolore hori argikoa da eta mamia zuria. Zapore bikaina du eta oso egokia da frijitzeko eta gisatuak egiteko; altxor bat da gure sukalde eta gusturako. Kasu honetan 3,5 kiloko sareko poltsa zurietan aurkezten da.



ZOZKETA

**BIALDU EUSKO LABELDUN PRODUKTUEKIN EGINDAKO ERREZETA BAT
ETA IRABAZI EUSKO LABELEN OTZARA!**

BIDALI ERREZETAK:

**astekaria@anboto.org edo Anboto Astekaria -
Bixente Kapanaga, 9 • 48215 Iurreta**

- * Bialdutako errezeta guztiek izango dute opari bat
- * Hurrengo zozketa azaroan egingo dugu, bialdu zure errezetak urriaren 28a baino lehen
- * Euskaraz idatzitako errezetak bakarrik onartuko ditugu

* Eusko Labelak jasotako errezeta guztien erabilpen eskumena izango du.



MALLABIA

UEMAAn izan duen ordezkaritza uztea erabaki du EAJk

Itziar Garitagoitia zinegotziak UEMAko kargua uztea erabaki dute jeltzaleek asanbladan

Udalak ordezkari bi izan ditu UEMAAn, Ezker Abertzaleko bata eta EAJkoa bestea, 2008an Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean sartu zenetik. Legegintzaldihonetan, Bilduko eta EAJko ordezkariak aukeratu dituzten arren, EAJk asanbladan uztea erabaki duela azaldu dute azken plenoan.

Itziar Garitagoitia EAJko zinegotzia izan da UEMAko ordezkari-tzari ezetza eman diona. "Aurrera-pausua eman da normalizazio ins-tituzional eta politikoa. Bildu ere hor dago instituzioetan. Badaude instituzioetan euskara bultzatzeko tresnak eta horiei lan egin eragin behar diegu". Ordenantzak eta hel-

Ezker Abertzaleak: "Oraindik ere euskaldunen hizkuntz eskubideak urratzen dira"

buruak onartuta daude, baina "pau-so gutxi" eman direla dio: "UEMAAn egonda dena ez dago eginda. Asma-tu behar duguna da erdaraz bizi diren elebidunak euskarara erakar-tzen".

Ezker Abertzalek azaldu due-nez, "1985 urtean Euskararen Legea martxan jarri arren, gauegun orain-dik ere zonalde euskaldunetan eus-kaldunen hizkuntza eskubideak hurratzen diren testigu gara". Hau "saihestu" gura dute UEMA-gaz, gaineratu dutenez: "Teknikariak eskain-tzen ditu erabilera planak aurrera ateratzeko eta diseinatzeko, admi-nistrazioko ikastaroak eskaintzen ditu, Kultur Elejiran parte har deza-kegu...". Eusko Jaurlaritzak bere tres-nak izango dituela euskararen alde egiteko diote, baina udalak bereak sortu behar dituela: "Hau izan da Mallabian egin dena azken hiru urteetan", adierazi dute. ■ J.G.

Ahalduntzea programazio neurolinguistikoagaz

Ikastaroa ematen dihardute Kultur Etxean urriko martitzenetan, eta izena emateko aukera dago

Mallabiko emakumeendako ahal-duntze ikastaroak martxan jarri dituzte Kultur Etxean. Antolatzaileek azaldu dutenez, hainbat esparrutan emakumeak ahalduntzea da helburua. Ongizate Sailak adie-razi duenez, ikastaro honetan ahal-duntzeko erabiliko duten tresna da programazio neurolinguisti-koa. Lehenengo saioa urriaren

4an antolatu zuten, eta urriko hurrengo martitzenetan ere eskai-niko dituzte; hau da, urriaren 11n eta 18an. Eguerdiko 14:15an ika-staroa martxan jarri eta ordu eta erdiko saioak izango dira. Antola-tzaileen berbetan, hitzordu bate-ra joan ez denak ere aukera dau-ka Kultur Etxera gerturatu eta ika-staroan parte hartzeko. ■ J.G.

MAÑARIA

Informaziorako panelak ipiniko dituzte auzoetan

Herriko auzo guztietan ipini gura ditu gobernu taldeak udal informazioa zabaltzeko panelak

Udalbatzarrei eta udalak antola-tzen dituen ikastaro zein ekintzei buruzko informazioa herriko auzo guztietan zabaltzeko, informazio panelak ipini gura ditu Bilduko gobernu taldeak. Guztira, bedera-tzi panel ipintzea aurreikusi dute.

Gaia udalbatzarrerara eroan orduko, dagokion batzordean aur-

keztu zuen gobernu taldeak pro-posamena, eta ordezkari guztien adostasuna lortu zuen. Informa-zio panelak ipintzeko lanak eslei-tzea da udaleko urriko ohiko batza-rren gai-ordenean jaso, eta pro-posatu dutena.

Kreditu aldaketa

Urriaren 7ko udalbatzarrean, bes-talde, aurretik Ogasun Batzordean eztabaidaturiko kreditu-aldaketa-rako proposamena ere egin dute: aldaketa horregaz, euskara ikasi dutenentzako diru-laguntzak gura dituzte eskaini. ■ I.E.

Udalari eta udalbatzarrei buruzko informazioa zabaltzeko bederatzi panel ipini gura dituzte auzoetan



Herritarren artean planaren inguruko informazioa zabaldu du udalak. Judit Fernandez

Plan Orokorren proposamena onartu dute udalbatzarrean

Aho batez onartu du udalak Aholku Batzordeak hartutako erabakia

Hiri Antolamendurako Plan Nagusia erredaktatzeko *Mallabia, denon artean* parte-hartze prozesua martxan jarri du udalak. Aholku Batzordeak sortu ditu, eta kontseiluak erre-daktatu du proposamena. Herri-tarren artean informazioa zaba-ldu eta alegazioak jaso ondoren, udalbatzarrak planaren aurrera-pena aho batez onartu du.

Mila Mondragon Mallabiko alkateak azaldu duenez, Debaba-rrenako Zatikako Lurralde Pla-nak, gutxienez, 104 etxebizitza

Kalbarion 36 etxebizitza eraikitzea aurreikusi dute. Roke Deunan beste 40

eraikitzea proposatzen du. Gaine-ratu duenez, "gure ustez, gehie-gizkoa da eta ez da egokitzen herrian dauden beharretara". Pla-nean onartu dute herrigunean, Kalbario kalean jausteko zorian dauden etxeak bota eta 36 etxe-bizitza eraikitzea, eta Roke Deu-na kalean beste 40 etxebizitza. Behe-solairuetan ere etxebizitzak eraikitzeo aukera izango da.

Areitio, Goitondo eta Urtia-ko industriaguneetarako, Deba-barreneko LzPak 70 hektarea han-ditzea aurreikusten du. Udalak 10 hektareako gehieneko eza-ri gura du: "Lehentasuna ema-ten diogu dagoen lurzoru indus-triala sendotzeari eta urbanizazio zaharkituak berriztatzeari".

Oinezkoentzako bide-sarea zabaltzea ere onartu dute: Mikro-

dekotik Osmara doan bidean espaloia egiteko eskatuz Bizkai-ko Aldundiari, eta Mallabarrena-tik doan erreka inguruak ere paseo bihurtuz.

Herriko industriaguneetan LzPak 10 hektareako handitzea aurreikusten du. Udalak, berriaz, 10ekoa

Hemendik aurrera, Hiri Anto-lamendurako Plan Nagusia idaz-ten ari den taldeak finkatuta dauz-ka lan ildo nagusiak behin behi-neko plana egiteko. Hala ere, oraindino erabakitzeo geratu dira beste arlo batzuk; ekipamen-duak, garraiobide sarea, nukleo ruralak, ondarea etab. ■ J.G.

IZURTZA

Herritarrek irailaren 4, 8, 10 eta 11ko jai-egunetarako antolaturi-ko egitarauan jasotako ekitaldiak gozatzen agertzen dituzten hain-bat argazki daude udalaren *www.izurtza.net* webgunean, iku-si eta deskargatzeko aukeran.

Irailaren 2an hasi eta 11n amaitu arte, herrian jai-giroa zabaldu zuten ekimenetan parte hartu zuten izurtzarrak erakusten dituzte webgunean batutako argazkietako askok.

Irailaren 4, 8, 10 eta 11ko jai egunetarako antolaturiko egitarauko hainbat ekintza daude argazkietan jasota

Besteak beste, lehiaketa gas-tronomikoetan, dantza emanal-dietan, umeentzako ekitaldietan edo kirol ekitaldietan hartutako argazkiak daude ikusgai. ■ I.E.

Jaietako argazkiak batu ditu udalak webgunean

Herritarren parte-hartzearen isla dira argazkiak



Umeentzako antolaturiko ekitaldietako hainbat argazki daude.

ELORRIO



Udaltzaingoa eta Ertzaintzaren arteko hitzarmena "ahalik eta azkarren" sinatu gura du udalak.

"Polizien arteko hitzarmenaren beharra areagotu" dute lapurretek

Lau egunean bi biderrez lapurtu dituzte kobre-kableak futbol zelai inguruan

Lehenengo lapurreta joan zen barikuan gertatu zen, Eleizale futbol zelaitik Tola Jauregiraino zihozten 600 metro kable ostu zituztenean; 5.500 euroko kaltea zenbatu dute. Telefonika kableko 300 metro ere eroan zuten.

Martitzenean, udal beharginak eremu horretan ostutako kablea berriz ipintzen hasi ziren, eta eguazten goizean, berriro lapurtu zutela ikusi zuten. "Honek

erakusten du ordu batzuetan ez daukagula behar besteko polizia zaintzarik", adierazi du Ana Ota-dui alkateak.

Hori dela-eta, Ertzaintza eta Udaltzaingoa kolaborazio-

hitzarmena "ahalik eta azkarren" sinatu behar dela uste du gobernu taldeak. Horrela, ertzainak arduratuko lirateke Elorrioko zaintza lanetaz udaltzainen zerbitzua amaitu ondorengo orduetan.

"Durangoko Ertzaintzagaz batzarrak eduki ditugu, eta zirriborroetan gabilta lanean. Oraindino ez dakigu noiz sinatuko den, baina laster izango da", azaldu du alkateak. ■ M. Onaindia.

Ota-dui: "Honek erakusten du ordu batzuetan ez daukagula behar besteko zaintzarik"

PPrena barik, EAJren mozioa onartu dute udalbatzarrean

Udalak "ETA talde terroristaren atentatu guztiak eta ibilbide osoa gaitzesteko" mozioa aurkeztu zuen PPK. ETAr desegitea eta biktimei barkamena eskatzea eskatzen du mozioak. EAJk beste bat aurkeztu zuen, "bortxakeria, ETArene barne, tresna politiko lege arbuia" eta "indarkeria amaitzeko elkarrietzeta politikoa bultzatu behar" dela adieraziz. PPK berea erretiratu eta jeltzaleena babestu zuen, "bigarren puntuagaz ados egon ez arren".

"Indarkeria amaitzeko elkarrietzeta politikoa bultzatu behar" dela dio mozioak

Bilduk ez zuen bozketan parte hartu, "garai berriak jarrera berriak" eskatzen dituelako, azaldu dutenez. ■ M.O.

Espezie inbaditzaileez kontzientziatzeko ekintza

Panpa-lezka landarea ugaltzea ekidin gura dute

Elorrioko Institutuko 3.DBHko ikasleek Garbitu dezagun Mundua Euskadi 2011 ekimenagaz bategin dute, panpa-lezka izeneko landare inbaditzailea oinarri hartuta.

Martitzenean San Agustin auzora joan, eta espezie horren luma-mototsak ebaki zituzten, "ugalketa ekiditeko". "EAEko bes-

te hainbat herritan lege, Elorrian ere espezie inbaditzaile hori ugarituz doala ikusita" erabaki dute ekintza aurrera erotea, Agenda 21eko dinamikan kokatuz. Gainera, bide batez, "ikasleak eta herritarrek espezie inbaditzaileen arazoaz kontzientziatzea" dute helburu. ■ M.O.



Ikasleek batutakoa udalak jaso zuen, gero erretzeko.

Ordenantza fiskalak "izoztea" onartu dute udalbatzarrean

EAJ eta PP azaldu dira alde, eta Bildu kontra; tasa batzuetan moldaketak egin dituzte

Elorrioko Udalak 2012rako ordenantza fiskalak onartu zituen eguaztenean. Zaborra batu eta garraiatzeagatik tasetan zein salmenta ibiltariengatik tasetan KPIaren %3ko igoera gauzatuko da; basabideen erabilepenerako tasa kendu dute, baina arauak indarrean jarraituko du.

Zergak "izoztea" erabaki dute, "egoera ekonomikoa kontuan hartuta"

Zergei dagokienez, bere horretan uztea erabaki dute, "egoera ekonomikoa kontuan hartuta", EAJren arabera. Obarietarako baldintzak egokitu dituzte bi kasutan: ondasun higiezin zergan, familia ugarietarako obaria familiakide bakoitzeko 9.000

euroko urteko errentaren azpitik mugatu dute; etxeetako eraikuntza eta obren zergan, obaria Alde Zaharreko 30 urte baino gehiagoko etxeek jasoko lukete % 95ean, eta gainerakoek %50.

Bilduk kontra bozkatu zuen, alde batetik "ordenantzak ez direlako era egokian eztabaidatu", eta, bestetik, herritarren artean "bereizketak" egiten direlako obarrietan. EAJk erantzun zuen, Bildu "denboretan berandu" ibili dela proposamenak aurkezteko.

Batzordeen osaketa

Informazio batzordeen osaketa ere onartu dute, kasu honetan aho batez. EAJk eta Bilduk ordezkari bina edukiko dituzte batzorde bakoitzean, eta PPK bakararra. Boto ponderatua erabiliko dute batzarretan: EAJk eta Bilduk sei-na eta PPK bakararra. ■ M.O.

ATXONDO

Kulturak ikusi, entzun eta dastatzeko jaia, bihar, egun osoan

Hainbat kulturatako atxondarren gastronomia ezagutzeko aukera egongo da kulturarteko jaian

Apatako plaza inguruan usain eta doinu bereziak nabaritutako dira bihar kultura arteko jaian. Goizeko 11:00etan hasiko da egitaraua, Andasto taldeak parte-hartzaileei eskainitako dantza saioagaz. Hainbat atxondarrek postuak ipiniko dituzte euren kulturetako jan eta edariak eskaintzeko.

Gastronomia dastaketaz gainera, hainbat elkarren postuak ipiniko dituzte, bidezko merkataritza postua, esaterako. Bakearen Jaima ere egongo da, eta bertan egipziar dantza ikastaroa, perkusio tailerra eta te dastaketa egongo dira, besteak beste. Munduko jolasen txokoa atonduko dute, eta berbereak musika kalejiran ibiliko dira. Eguerdian Durangoko Ullanah taldeak folk kontzertua eskainiko du, eta munduko dantzen tailerra eta antzerkia edukiko dituzte arratsaldean.

Aste osoko egitaraua

Asteon kulturartekotasunarengaineko dokumentalak eta berbal-diak antolatuz dituzte. Ehundegi maia batez txapelak egiteko tailerra ere egon da ekintzen artean, baina datorren martitzenera atzeratu dute. Ludotekan izango da tailerra, 17:00etatik aurrera. ■ A.U.

EGITARAUA

11:00 Jaiaren hasiera

Merkatua, janari eta edari dastaketa, dantza, 'Bakearen Jaima' eta munduko jolasen txokoa

14:00 Folk kontzertua

Ullanah taldea

16:00-18:00 Tailerra

Munduko dantza

18:00 Umeentzako antzerkia

'Atxikistan 11 salto gehiago'

katerin ardoak
iñaki uribe
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK
Aukera ezazu hemen zure erregalua
Andra Mari kalea, 9 DURANGO Tel.: 94 681 50 17

"BODEGUILLA"
TRAÑA-MATIENA
Tfno. 94 681 43 85

JAIETAKO ARGAZKIAK

IURRETA



Argazkiak: Paste



anboto.org

Durangaldean labor

Sasi-garbitzailea otea egotzita, atxilotu bi

Baserri batean sasi-garbitzeko alapur-tzeagatik, pertsona bi atxilotu zituen Ertzaintzak, eguaztenean, Mallabian. Ustezko lapurrak BI-3341 errepidean atzeman zituzten, Goiurira bidean. Atxilotuak 36 urteko gizon bat eta 32 urteko emakume bat dira. Biek polizia aurrekariak dituzte.

Elorrio-Atxondo tarte esleitu dute

Espainiako Sustapen Ministeri-tzak AHTaren proiektuko Elorrio-Atxondo zatia adjudikatu du asteon. Zati hori Elorrioren gartzen da osorik, eta 2,6 km ditu. Kinatol (880 metro), Zabaleta (320) eta Larrazabaleko (200) biaduktuak aurreikusten ditu.

Dantzan ikasteko ikastaroa Elorrioren

Dantza ikastaroa antolatuko dute Elorrioren. Asteon hasi da eta ekainera arte iraungo du. Eguzketan Arriola antzokian batuko dira 19:30etik 21:00etara, eta Patxi Montero izango da irakaslea. Eguzketan bertara joanda eman daiteke izena.

DURANGALDEA



Arabako Foru Aldundiarena da linearen kontzesioa, eta Alsa enpresa da esleipena jaso zuena.

Durangotik Gasteizera orduroko autobus zerbitzua eskatu dute

Otxandio, Mañaria eta Izurtzako udalak Bizkiako Foru Aldundiagaz batu dira

Otxandio, Mañaria eta Izurtzako udaletako ordezkariak Bizkaiko Aldundiko Garraio eta Herri-lan Saileko arduradun Itziar Garamendigaz batzartu ziren astelehenean, hiru herriak Durango eta Gasteizegaz lotzen dituen autobus zerbitzua "eskasa" dela adierazi eta "konponbide bat emateko pausuak ematen" hasi daitezen eskatzeko.

"Aldundiaren aldetik jarrera positiboa ikusi dugu, eta Arabako

aldundiagaz batzeko prest agertu dira", azaldu du Pello Otxandiano Otxandioko zinegotziak.

Izan ere, gaur egun Alsa enpresak gauzatzen duen linea horren kontzesioa Arabako Aldundiari dagokio. Horregatik, datorren astean Arabako Aldundiko ordezkariekin batzartzeko eskaria ere egin dute: "Hiru herriak Bizkaian daudenez, Bizkaiko Aldundiak arazo honetan esku hartzea gura dugu, horrela, aldundi biak eta hiru herriak mahai berean eseri eta arazoari irtenbidea bilatzeko. Ez diogu errazagoa izango denik, baina hori da bidea".

Hiru herrien eskaera garbia da: "Autobusa orduro hartzeko aukera izatea gura dugu". Eskae-

ra hori arrazoitzeko hainbat argudio plazaratu dituzte. Izurtza eta Mañariari dagokienez, "erabateko deskonexioa dago, nahiz eta Durango gertu dagoen. Batzuetan taxia erabili behar izaten dute".

Hiru herriak Bizkaian daudenez, Bizkaiko Aldundiak ere esku hartu beharko lukeela uste dute

Otxandioren kasuan, mediku zerbitzuagatik zein erosketak egitera sarritan joan behar izaten da Gasteizera. Horrez gainera, "Gasteizen unibertsitate garrantzitsua dago, eta Durangaldeko jende asko joaten da bertara". ■ J. Derteano

GARAI

Ondare Jardunaldietako bazkaria, urriaren 16an

Hilaren 11 arte eman daiteke izena bazkarirako; Elizabarrin izango da, eguerdiko 14:00etan

Europako Ondare Jardunaldien baitan, Durangaldeko Landa Garapena eta Gerediagaren laguntzagaz eratu dituzte udalek ekimenak; Garain, urriaren 16an ospatuko da bisita-antzezpene eta bazkaria. Valentin Zubiaurre

Bazkaria Jantxu Larruzea sukaldariak prestatuko du, sasoiko eskuizkribu baten informazioan oinarrituta

musikariaren ama eta Elizabarriko San Juan elizako moja zen Dominga Urionaren sasoiko bizi-modua islatu gura dute.

Antzezpenean, Urionaren pertsonaiak Ilustrazioaren azken aldian Bizkaiko landa elizate batean bizimodua zelakoa zen azalduko du. Bazkaria Jantxu Larruzea sukaldariak prestatuko du, eskuizkribu batean oinarrituta. Fraide zopa, Dominga Urionaren eltzekaria, legatz bete Elizabarri eran, untxi ilustratua eta ogi txigortua daude 40 euroko menuan. 688 632 284 telefonoan egin daitezke erreserbak. ■ M.O.

BERBAZ >

“Jendeak badauka oraindino AHTa lako proiektuak gelditzeko gogoia eta indarra”

Eguazten honetan hasi da 2009an Urbinan atxilotu zituzten AHTaren kontrako ekintzaileen epaiketa.



Imanol Madariaga •

- Durangarra da
- Irakaslea

“Atzeratzeko ahaleginek eta krisiak AHTa gelditu dezakete”

Desordena publikoa eta lesio faltak leporatuta sei pertsona epaitzen hasi dira Gasteizen asteen. AHTaren kontra Urbinan egin dako martxan atxilotu zituzten sei lagun horiek, eta eurretako bat da Imanol Madariaga durangarra. Eguazteneko saioan defentsak azaldu du guztiz baketsua zen ekimen bat bortizki erasotu zuela Ertzaintzak. Urriaren 14an jarraituko du epaiketak.

Zer leporatzen dizute?

Bi urteko zigorra eskatzen dute niretzat, desordenengatik. Teknikoki ez dakit desordenak zer esan gura duen. Guk trenaren plataformara igo gura izan genuen, kendu ziguten lurra momentu baterako behintzat berreskuratzeko. Han ez zen egon makinarik ez ezer, beraz, arriskurik ez zen egon. Desordena ertzainek sortu zuten; kargatu eta pilotakadaka hasi ziren. Gutako batzuk jesarri egin ziren plataforman, eta furgonetagaz eurak harrapa-

tzeko keinua egin zuten ertzainek. Gutxi batzuk heldu ziren bertara, eta beste asko alboko landan egon ginen sartzeko gogoagaz, pilotakadaka artean. Adierazgarria zen jendeak zer argi zeukan AHTaren kontra zerbaitegin behar zela; denbora piloa egon ginen landan, pilotakadaka artean.

Zelan atxilotu zintuzten zu?

Ni landan nengoen, eta plataformara heldu zen bati buruan jo ziotela pentsatu genuenean laguntzera igo ginen. Han geratzen baginen atxilotu egingo gintuztela esan ziguten, eta bajatu egin nintzen. Gero, jendea jarraitu zuten herrira, eta denak ari neketan. Han, ertzainen batek aurrean ikusi ninduela eta atxilotzeko esan zuen.

“Desordena publikoa ertzainek sortu zuten, pilotakadaka”

“Jendeak argi zuen AHTaren kontra zerbaitegin behar zela; denbora piloa egon ginen landan, pilotakadaka zebiltzan bitartean”

Zelan interpretatzen duzu Ertzaintzak martxari emandako erantzuna?

Momentu hartan manifestazio ugari eginda zeuden, eta hainbat herritako kontsultetan jendeak ez zuela AHTrik gura adierazi zuen. Gobernuak aurrera jarraitu zuen, eta herritarrek esana ez zuten onartzen, desobeditu egin behar zen. Kontrako mugimendua gora zihoan eta beharbada momentu indartsuenetakoa zen. Gobernu aldetik, ikusi zuten propaganda asko egin zutela baina jendea ez zutela konbentzitzen. Orduan, derrigorrez egin behar zela-eta, jendea erditik kendu behar zutela erabaki zuten. Horregatik izan zen nire ustez erantzuna hain gogorra. Neurri batean lortu zuten jendea beldurtzea, eta beste askok pentsatzea ez dagoela AHTa geldi-

tzeko biderik. Baina beste askok oraindino uste dugu aurrera jarraitu behar dugula eta gelditu egin daitekeela.

‘Ni ere Urbinan egon nintzen’ elkartasun kanpainan 1.599 autoinkulpazio aurkeztu dira.

Bai. Izan ere, argi ikusi dugu gu mugimendu horretako ordezkari batzuk baino ez garela. Gu hartu gintuzten moduan beste edozein hartu zezaketen. Guk ere badakigu adibidez ez dabiltzala ni epaitzen ni Imanol naizelako, AHTaren kontra mugitu den pertsonetako bat naizelako baino. Beste edonor izan zitekeen, eta hori azaldu gura izan dute hainbat eta hainbat autoinkulpazioekin.

Zelan ikusten duzu proiektuaren garapena?

Garraio sailburuari entzun nion, duela urte bi, proiektua

kolokan egon zitekeela tarte asko hasi barik zeudelako. Orain dio proiektua helduta dagoela tarte asko daudelako martxan, baina astiro-astiro doaz lanak, eta urtero eurek pentsatzen zuten baino diru gutxiago dute, eta horrela izango da krisiagatik. AHTaren kontrako mugimenduan ikuspegi hori ere egon da hasieratik: badakigu petrolio bukatu egingo dela, krisia etorriko dela, eta atzeratzeko ahalegina eginez gero, azkenean bertan behera geratuko da. Beste proiektu askogaz hori gertatu da.

Orain momentuan zelan ikusten duzu AHTaren kontrako mugimendua?

Aurreko zapatuko martxan jende askotxo egon zen, eta oraindino indarra dagoela ikusten dut. Ertzainen helburua Urbinako jipoiketagaz ez zen bakarrik AHTaren kontrako mugimendua gelditzea; jendea orokorrean geldiaraztea ere bazen, ez mugitzea. AHTagaz ez dakigu zer gertatuko den, baina argi geratu dena zera da: jendeak badaukala oraindino horrelako proiektuak gelditzeko gogoia eta indarra. ■ A.Ugalde

Greminioen gida

PINTURAK

Sagasta Pinturak

APARAGAKUA ETA INDUSTRIALA

- Fatozotasako proiektu bereziak (impermeabilizazioak, barnizatuak, ...)
- Era guztietako bame eta kanpo dekorazioak (lokalek, tabernak, etxebizitzak, ...)

Sagasta auzoa • Anbe Goikoa
48220 ABADINO • Bizkaia
Tel.: 629 143 944 - IBAI URIEN

DEKORAZIOA

a-metz

[barne] diseinua

Diseinua - Dekorazioa
Ideiak - Proiektuak 3D
Legalizazioak - Erreformak
Gremioen koordinazioa
Altzariak - Osagarriak

www.a-metz.com

Ibaizabal, 3A behea • Tel.: 94 681 84 81 • Durango

AROTZERIA

EGUIA S.L.

AROTZEGIA

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
Mug.: 669 655 169
Mug.: 629 587 653

Iturbide kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaegui.com

ELEKTRONIKA

URBASA ELEKTRONIKA TELEKOMUNIKAZIOAK

SALMENTA ETA KONPONKETA • TB • SOINUA • BIDEOK • IRRATIA • KOMUNIKAZIOA • ANTENA KOLEKTIBOAK • SATELITE BIDEZ • ALARMAK

Askatasun Etorbidea, 13 • Durango
Tel.: 94 681 33 03 • Fax: 94 620 15 80
urbasa@urbasatel.com
www.urbasatel.com

Panasonic

Telebés
Instalazioak
Ofiziala

ITURGINTZA

berriozabaleta

Iturgintza • Berokuntza

gremioen koordinazioa

jose miguel acedo

mug.: 609 381 887 • tel./fax: 94 623 18 55
berriozabaleta@yahoo.es
48230 Elorrio (Bizkaia)

GARBIKETAK

AZKARGI GARBIKETAK

Bulnag eta kanpitate mantentzeak
Obra osteko garbiketa
Krisaketa eta alfonbrak

Goleta, 46 - 2. esk. - Elorrio - 615 79 12 19

ELEKTRIZITATEA ARGIZTAPENA

Material elektrikoaren salmenta

PUJANA

ELECTRICIDAD

Urkiola 2, behea • 48200 DURANGO • Tel.: 605 705 818

urtiaga

gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com

K21

LORAZAINTZA

Jardines Patxi

florategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldeak
Eskatu zure nurrekontua beldur, barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behea
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com

Ubide

iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

KULTURA[>]LITERATURA[>] EUSKADI SARIA

Moroak gara behelaino artean? saiakera lanagatik eman dio Kultura Sailak Euskadi saria Joseba Sarrionandia iurretarrari. Eusko Jaurlaritzak jakinarazi duenez, baina, sari moduan egileari dagokion dirua atxiki egingo dute. Euskadi Sarien ebazpenaren harira, zalaparta mediatiko-politiko handia sortu dute aste honen hasieran, eta idazleak “justiziaren aurrean bere egoera erregularizatu arte” Sarrionandiak ez duela diru-saria jasoko azpimarratu du Jaurlaritzak.

Atzo komunikabideetara bidali zuen oharrean, Eusko Jaurlaritzak “behar den zuzenketa egitea espero” duela adierazi zuen Joseba Sarrionandiaren familiak. Hiru puntu biltzen dituen oharrean, besteak beste, Joseba Sarrionandiak Euskadi Sariatant hautagai izateko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela azpimarratu du familiak: “Ez da bidezkoa, epaiaren ondoren betebeharrak gehiago ezartzea”, diote. Sarrionandiak justiziarekin “ebazteko dagoen auzirik ez” daukala ere adierazi dute.

Idazleak “justiziaren aurreko egoera erregularizatu arte” dirua atxikiko duela dio Jaurlaritzak

Aste hasieran egindako adierazpenetan, Euskadi Sarien epaimahaiaren ebazpena “errespetatzen” duela eta ez duela “zalantzan jarri gura idazlearen literatur balioa” ere adierazi du Jaurlaritzaren Kultura Sailak, baina “legea betetzeko eta terrorismoa irmoki arbuiatzeko daukan konpromisoagazko koherentziak”, dio Gobernuak, “traba larriak ditu Jaurlaritzak saria horrelako pertsona bati eman dakion; hau da,

Jaurlaritzak “zuzenketa egitea espero” du Sarrionandia familiak

‘Moroak gara behelaino artean?’ saiakeragaz Euskadi Saria jaso arren, Joseba Sarrionandiari dagokion diru-saria idazleak “justiziaren aurreko egoera erregularizatu arte” atxikiko duela esan du asteon Jaurlaritzak. Atzo hedabideetara bidalitako oharrean familiak dioenez, “ez da egia Joseba Sarrionandiak ebazteko dagoen auzirik duenik”

ETA organizazio terroristako kide izateagatik zigortua izan den, kartzelatik ihes egin duen eta 1985az geroztik leku ezezagunean den eta bere militantziaz sekula damurik agertu ez duen pertsona bati”.

Iazko Durangoko Liburu eta Disko Azokan kaleratu zuen Pamiela argitaletxeak Joseba Sarrionandiaren *Moroak gara behelaino artean?* liburua, eta Pello Eltzaburu editoreak aurkeztu zuen 2011ko Euskadi Sariatara. Zazpi urteko lanaren emaitza da, eta 700 orrialde ditu liburua.

Pedro Hilarion Sarrionandia fraide frantsizkotarraren ibilerak kontatzen dira liburuan: berbere kulturaren eta Arrifeko hizkuntzaren gaineko ikerketa burutu zuen gizonaren inguruan eraikitako gogoeta bilduma da. Mendeetan zapaldua izan den kultura eta hizkuntza berberearen historia kontatzen du liburua, eta tartean euskaldunen kolaborazioa ere izan zuen kolonialismoak 1936ko altxamendu militarrean izan zuen eragina ere bai, besteak beste. Bibliografia eta gogoeta-bilduma zabala eskaintzen du Sarrionandiak, inperialismoa, hizkuntza, eta kultura lako gaiei buruz.

Asteon jakinarazi dutena ez da izan Sarrionandiak literatur sari bat jaso duen lehenengo aldia; 1986an, *Atabala eta euria* lanak jaso zuen Espainiako kritikaren saria, eta *Lagun izoztua*-k, 2001ean. ■ A.B./I.E.



“Sarriren ibilbidean eta euskal literaturan liburu klabea da”



Barandiaran, Zilar Astean, Sarrionandiaren letrak kantatzen.

Joseba Sarrionandiak erbestean sorturiko azkeneko literatur lanen argitalpena irrikaz itxaroten duten irakurleen elkargune izaten den Durangoko Liburu eta Disko Azokaren aurtengo irudiaren aurkezpen egunean, astelehenean, eman zuen Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakitera iurretarrari eman diola 2011ko Euskadi Saria epaimahaiak, saiakera atalean. Pamiela argitaletxeak iazko Azokan aurkeztu zuen *Moroak gara behelaino artean?* goraipatu egin du epaimahaiak.

Durangoko Plateruenak eta Durangaldeko beste hainbat kultur eragilek 2010ean antolatu zuten Zilar Astea lehenengoz, eta literaturzale euskaldunentzat idazle kutunen etariko den Joseba Sarrionandiaren poesiari buruz Gotzon Barandiaran idazleak eta beste hainbat artistak *Koblakariak behar ditugu* ikusizuna prestatu zuten. Sarrionandiaren saiakera eta olerki-

gintzari buruzko hainbat ikerketa burutu dituen Gotzon Barandiaranekin jardun dugu *Moroak gara behelaino artean?* lanaz.

“Sarrionandiaren orain arteko kezka batzen ditu liburu honek”, uste du Larrabetzuko idazleak: “Hizkuntzarekikoa, herrialdeen arteko harremanekin loturikoa, inperialismoari buruzkoa, euskaldunon historiari eta euskaldunok historian izan dugun paperari buruzkoa, Euskal Herriak egitura politiko eta kultural bezala daukan etorkizunari buruzkoa...”.

Moroak gara behelaino artean? honetan, “lanikargarria” egin duela iurretarrak dio Barandiaranek: “Azkeneko 20 urteetan ez dut uste horrelakorik idatzi denik Euskal Herrian: datu biketa ikaragarria burutu du, itzela da ekarpena”. Zazpirehun orrialdeko liburuaren azkeneko hirurehunak, “gogoetari dagokionez, sumendi bat dira”, azpimarratu du Barandiaranek: “*Ni ez naiz hemengoan* legez, irakaspenera ematea ez, galderak proposatzea da Sarrionandiak egiten duena, eta gogoeta horiek praktikan aurrera eramaten saia-

tzea”. Joseba Sarrionandiaren ibilbidean “liburu klabea” dela eta euskal literaturaren historian oso leku garrantzitsua izango duela dio Barandiaranek, “iaz argitaratu zen Koldo Izagirreraren *Autopsiarako frogak* saiakerak moduan, topiko asko apurtu dituztelako”.

“Gogoeta mailan, sumendia dira liburuak azken 300 orrialdeak”

Oso momentu inportantean etorri dela liburuak dio Barandiaranek: “Euskaldun legez erasotua eta diskurtso bat egituratzeko premian gaudenean”. Azken urteetan saiakera asko eta ondo landu dela Euskal Herrian azpimarratu digu Barandiaranek, eta gogoeta horiek zelan gauzatu zentralatu behar genukeela orain. Sarrionandiak berak esana da, Barandiaranen berbetan, “sariak ez dutela literaturagaz ezelako zerikusirik”. Euskal literatura zabaldu eta prestijiatzeko beste-lako moduak landu beharra ikusten du Barandiaranek. ■ I.E.

PINTURA> ERAKUSKETA

Durango, San Fausto jaien hilabeteen, herriko museoko hormetan erakusteko ekarri dituzte Joseba Escámez margolari eibartarrak egindako Durangoko paisaien koadroak. Urriaren 6an zabaldu zuten erakusketa, eta hilaren 30era bitartean Durangoko Arte eta Historia Museoan izango dira bisitarientzako ikusgai.

Argazkiko Pinondokoa lako paisaiak jasotzen dituzten koadroak daude erakusketan

Margogintzan diharduenetik, hainbat sari eta goraipamen jasotakoa da urrian bere lanaren bilduma Durangoan ikusgai ipini duen Joseba Escámez (Eibar, 1958).

Bere burua autodidaktatzat aurkeztu du Escámezek, eta "xede bakarra lan jarraitua eta artelan propioaren ikerketa burutzea" dituela azaldu du. "Ingurua eta kolo-rea zelan landu, eta lanaren ñabardurak zelan jorratu" izaten omen du koadro bakoitzarekin aztergai nagusi. ■ I.E.

Durango irudiak biltzen dituzten koadroak, jaietarako

Urriaren 30a arte, Durangoko Museoan daude Joseba Escámezen lanak



ZINEMA> EMANALDIA

'A film unfinished: Gueto' dokumentala eguenean Elorrioko Iturri kultur etxean

Urriaren 13an, 19:30ean, Elorrioko Iturri kultur etxean eskainiko dute Yael Hersonski israeldarraren dokumenta



Zinema ere baliatu zuen nazismoak propagandarako, eta historia garaikidearen parte hori islatzen duen filma da Hilean Behin dokumentalen zikloan Elorrioren ikusgai izango dena: urriaren 13an, 19:30ean, Iturri kultur etxean emango dute.

Yael Hersonski zuzendari israeldarraren lehenengo dokumental luzea da

Bigarren Mundu Gerraren ostean, Ekialdeko Alemaniako artxibategi batean agertu zen film bat da Hersonski zuzendariak lan honetarako ardatz bezala hartu duena: naziek 1942an Varsovian grabatutakoak dira irudi horiek, eta historialari askok izan dituzte ondorengo urteetan hizpide.

Naziek propagandarako sortu zuten iruzur zinematografikoa erakusten du dokumentalak

Berrogei urte geroago agertu zen, 1942ko film horren hartualdiak errepikatuta erakusten zituen beste zinta bat; bertan, eszena bakoitza antolatuta eta diseinatzeko duen kameralari bat agertzen da; irudiek erakutsiko dutena aurrez prestatzen.

Yael Hersonski zuzendari israeldarraren lehenengo dokumental luzea da *A film unfinished: Gueto*, eta historiaren parte hori berreskuratuz, nazismoaren propagandarako antolatu zuten iruzur zinematografikoa ematen du argitara. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA



Jose Martin Urrutia, 'Txotxe' irakaslea

Kukutza

Azken urteetan Euskal Herri honetan azpiegitura kultural anitz eraiki dira. Museoak, kulturetxeak, antzokiak... Ugari esango nuke eta, era berean, beharrezkoak; aurretik ezer gutxi zegoen, eta kasu askotan ezer ez. Batzuk administrazioaren bedekiazio eta laguntza mugazinekin eraiki dira, noski, beste batzuen kalterako. Eta hor ditugu orain gure hirien erreka bazterrak ponpoxten (Guggenheim, Euskalduna, Moneoren kuboak), gure kulturaren "ikono" bihurturik.

Olympo berri hauetan, gizarte zati baten plazerrerako, mundu mailan dau den espektakulu glamurosoenak izaten dute bertan zita. Bitartean, herri txiki, ertain zein auzuneetan eragile kulturalak hamaika ordu eta izerdi botatzen dituzte aretoen jardueraz zein programazioa aurrera eramateko. Eta hau gutxi balitz, herri-tarrak denetarik taldeetan antolatutako kultura sortzen saiatzen dira, kultura, eskapate bat bakarrik ez dela aldarrikatuz. Horren eredu, Kukutza gaztetxea.

Urteetako lana eta auzunearen eta eragile kulturalen babesa ez dira nahikoa izan, eta neurririk bako indarkeriagaz kaleratu dituzte

Goraipatzekoa, hamahiru urteetan egin duten lana, baina, zoritxarrez, jabetza pribatua den totoma ez dute errespetatu eta erabiltzen zuten espazioa eskaboreen haginek txikitu dute. Urteetako lana, auzunearen babesa eta eragile kulturalen errekonozimendua ez da nahikoa izan, eta gupidarik gabe kaleratuak izan dira, neurri gabeko indarkeria erabiliz. Kaleratze "klasista" bat antzeztu dute, gizarte zati baten oniritzirako.

Gehiengoa direla sinestera nahi digute, baina ez da horrela. Eurak dute agintea, jabegoa, botere ekonomikoa, hedabideen kontrola, indarkeriaren eskubidea, baina gure eskuetan sormena eta herri-tartasuna dago. Balore hauek zorionez ez dute jabego pribaturik, eta eurekin ezin da espekulatu.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

Gau Elektronikoa
URRIAK 7 23:00etan
GAU ELEKTRONIKOA & friends
MUSIK KLUB. Sarrera: 8-10 euro.

DURANGON FOLK
URRIAK 21 21:00etan
SICK OF IT ALL + SHAI HULUD + ALL FOR NOTHING
KONTZERTUA. Sarrera: 16-19 euro.

DURANGON FOLK
URRIAK 30 18:30etan
DURANGON FOLK
DANTZA IKUSKIZUNA. Sarrera doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

MÁS CERCA Anthony Blake
Urriak 12 • 20:00

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Hitz liburu-denda

artekalea 14, durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

PROGRAMAZIOA > URRIA-ABENDUA

Rolando Isoird alkatea, Sebe Alava kultura teknikaria eta Txintxaun Kolektiboa herriko antzerki taldeko Andoni Ruiz batu ziren, egue-nean, udaletxeko pleno aretoan, urritik abendura arteko Berrizko agenda kulturala aurkezteko.

2011-2012 ikasturteko lehenengo hiruhilekoan, Kultur Etxeak hamasei kultur emankizun hartuko dituela azaldu zuen alkatetik. Besteak beste, "azken urteetan harrera oso ona eduki duten" bariku arratsaldeetako umeentzako emanaldiak mantendu egingo dituzte; hamabostean behin eskainiko dituzte. Hain zuen ere, Panta Rhei taldeak umeentzako sorturiko *Tira aurrera* lanak zabalduko du ikasturtea, urriaren 7an.

Urrian, azaroan eta abenduan, umeei zuzenduriko 8 emanaldi

Urrian, azaroan eta abenduan, beste zazpi emanaldi izango dira umeei zuzendurikoak; tartean, azaroaren 4an, Kukubiltxo taldearen *Leihotik mundura* ize-neko azken sorkuntzaren emanaldia hartuko du Kultur Etxeak, eta Kolore Bitxia taldearen *Mondo Flurss*, urriaren 21ean.

Helduei, herrikideen sorkuntzak gozatzeko irrikaz egoten diren berriztarrei zuzenduta, estreinaldi bat ere jaso dute udazken-neguko Berrizko agenda kulturalan: langabezia gai nagusitzat daukan *The Full Monty* filmean oinarrituta, Txintxaun Kolektiboa

Hamasei kultur emankizun, urritik abendura, Berrizko kultur etxean

Udaletxean aurkeztu zuten, eguaztenean, udazken-negurako 16 emanaldi jasotzen dituen agenda kulturala



antzerki taldeak moldaturiko komedia dramatikoak.

Abenduaren 17an, Andoni Ruiz kideak aurkezpenean esan duenez, "sorkuntza prozesu luze

eta zorrotzaren ostean", eskainiko dute azken lana.

Aurkezpenean Isoird alkatetik azpimarratu duenez, urri-abendura begira, orain arteko "film emanaldien kopurua bikoiztu egingo dute" Kultur Etxean. Barikuetan eta domeketan izango dira zinema emanaldiak.

Besteak beste, Gu Gira kantaldia ere eskaintzen du Berrizko agenda kulturalak: abenduaren 3an, Euskararen Egunean. ■ I.E.

Langabeziari buruzko The Full Monty estreinatuko du Txintxaun Kolektiboak

URRIAN

Tira aurrera
Urriaren 7an

Abuelita de Batman
Urriaren 15ean

Mondo Flurss
Urriaren 21ean

Show Park
Urriaren 29an

AZAROAN

Leihotik mundura
Azaroaren 4an

S@rebegian
Azaroaren 12an

En la lona
Azaroaren 18an

Gezurrezko printzea
Azaroaren 27an

AURKEZPENA > KARTELA

Abenduaren 4tik 8ra izango den Liburu eta Disko Azokaren kartela aukeratzeko Gerediaga Elkartek antolatutako lehiaketara aurkezturiko 28 lanen artean, Cristobal Aguiló valentziarrak aurkezturikoa aukeratu du epaimahaiak. Horrela azaldu du azokaren antolatzailea den Gerediaga elkarteak, Durangoko San Agustín kulturgunean eskainiriko agerraldian.

Binilozko disko baten irudian oinarriturikoa da Murtzian bizi den Aguiló diseinatzaile grafikoak osaturiko irudia, eta liburu bat irakurtzen diharduen pertsona baten irudia jaso du kartelean. Eguaztenean aurkeztu zuten kartela zein lehiaketara aurkezturiko beste lanak ikusgai ipini ditu Gerediaga elkarteak, www.durango-koazoka.com webgunean.

Kultura galegoa

Durangoko San Agustín kulturgunean kartela aurkezteko eskaini zuten prentsaurrekoan aurreratu du Jon Irazabal azokaren zuzendariak, abenduaren 4tik 8rako aurtengo edizioan, "kultura galegoa" izango dela gonbidatu berezia.

Galiziako Culturгал elkarteagaz batera, "sortzaile euskaldunek eta galegoek elkarrekin parte hartuko duten ekimenak sustatzeko egitaraua osatzen dihardu", Jon Irazabalek jakitera eman zuenez, Gerediaga Elkartek. ■ I.E.

Cristobal Aguiló aurkezturiko kartelak iragarriko du 46. Liburu eta Disko Azoka

Hogeita zortzi kartel jaso dituzte Gerediaga elkarteak deituriko lehiaketan; Murtziara joan da aurten 1.300 euroko saria



IRITZIA >

Gutunak @**Anboto Astekarian 2011-09-30ean
Kurutziaga ikastolako Elixabete Larrinaga
presidenteak argitaratutako 'Tabirako eta
euskara' gutunari erantzunez**

Ikastolako presidente andre agurgarria,

Ez dakit nondik hasi erantzuten Anboto astekarian argitaratutako gutuna, oso bidegabea iruditzen zaidalako, hutsez eta gezurrez betea. Argi gera bedi, nire asmoa ez dela gezurti deitzea aipatutako gutunaren egileari, baizik azpimarratzea, bertan, Tabirako saskibaloiko taldeko 2011-12 denboraldiko aurkezpenean, alegia, egon ez eta pertsona batzuen iritzietaz fidatu dela. Benetan zalantza egiten dut pertsona horiek polikiroldegian egon ziren ala ez.

Adierazi nahi dut maila pertsonalean min itzela egin didala gutun honek, presidente bezala legegintzaldi honetako nire helburu bat taldean eta Durangoko gizartean euskara sustatzea izan eta izango delako. Horrela gertatzen ari da, eta konturatu ez dena klub honetatik ez da oso gertu ibili. Ez dut inola ere onartzen, ez zuri Elixabete, ez inori, urrutitik esatea ez naizela betetzen ari ikastetxeekin eta Tabirako-rekin lehen hartutako konpromisoak. Ezta alor honetan nire hitzak haizeak eroan dituenik esatea ere. Guztiz faltsua da.

Ezin dugu ulertu Kurutziaga ikastolako presidentea (kargu garrantzitsua), aldizkari publiko batean beste pertsona batzuen bitartez jasotako akusazio bat argitaratu baino lehen, nola ez den gauza Tabirako-rekin harremanetan jartzeko informazio hori argitzeko, eta entzuteko, buruz buru, aurkezpenaren zehaztasunak.

Non zeuden denboraldiko aurkezpenean euskaraz ez zela egin esaten duten pertsona horiek nire hitzaldi oso-oso euskaraz izanik? Ez nuen berba bat ere gazteleraz egin, beraz, pentsatu behar dut ez zuela bertan edo megafonia ez zela ona esaten nuena ulertzeko. Gainera, Tabirakoren himnoa euskaraz kantatu zen, aureskua dantzatu, taldeak aurkezleak euskaraz aipatu zituen... Non dago kexa? Egia esan, uste nuen kontrako zentzuan hartuko nituela kexak; gure denboraldiko aurkezpenean gaztelerazko hitz bat ere ez esateagatik.

Badakite pertsona horiek zein hizkuntzatan den entrenatzaileekin nik daukadan harremana? Jokalariekin? Udaletxearekin eta beste elkarteekin? Gure batzarretan? Nola ausartzen zarete esaten gure klubaren erdalduna dela, nik dudak izanik, hain gertu zaudetenik guregandik hori baieztatzeke? Ikastolan entrenatzaile asko daukatzue Tabirakotik oso gertu, eta galdetu ahal diezue frogatzeko.

Hala ere, eta nire sentimendu propioak alboan utzita, Tabirako bi mila durangar baino gehiago mugitzen dituen giza talde bat da. Durango gizarte elebiduna da, euskaldunak eta erdaldunak bizi gara, eta Tabirakok, erakunde lege, ezin du inor ahaztu. Horregatik taldearen aurkezpenean ez dugu inoiz hizkuntza bakarrean egingo; biak maila berean erabiltzen saiatuko gara. Urte honen aurkezpenaren balorazioa egiten badugu, ez dut huts egingo esatean % 85 euskaraz izan zela eta %15 erderaz. Nor kexatu ahal da?

Amaitzeko, badakizue zenbat borroka, kritika eta mehatxu jasan behar izan zuen Tabirakok bere izena euskaraz ipini ahal izateko duela 52 urte? Badakizue Durangoko lehen talde/elkartea izan zela euskaraz ipini zuena bere izena?

Ez da euskaldunago besteak kritikatzeko dituen euskalduna ez izateagatik, euskararen alde lan egiten duena baizik. Tabirako hori egiten ari da, zalantza izpirik barik, eta, horretan, hemendik zabal-tzen dizkiogu gure ateak gurekin buru-belarri lan egin gura duenari.

Azkenik esan beharrekoa da, nahiz eta gutun hau nik lehenengo pertsonan idatzi eta sinatu, Tabirakoko Zuzendaritza Batzorde osoaren babesa eta adostasun guztia daukadala.

Agur bero bat.

Itsaso Gartzia - Tabirako ST-ko presidentea

Tabirako eta euskara

Tabirako Saskibaloi Klubaren presidente andre agurgarria,

Joan den astean astekari honetan zuri eta ordezkatzeko duzun erakundeari buruz kaleratu nituenak kaleratuta, gizalegekoa iruditzen zait ondokoak agertzea:

- Onartu eta aitortzen dut sinesgarritasun osoa eman niela, irailaren 23an 2011-2012 denboraldia aurkezteko egin zenuten ekitaldian euskara ez zela erabili esan zidaten bost pertsonen. Denak bertan egon omen ziren ekitaldiak iraun zuen bitartean.

- Onartu eta aitortzen dut berehalako erantzuna emateko nahiak bultzatuta eta iaz gai berberaren inguruan izan genuen "gorabehera-txoaren" aurrekariak eraginda, ez nizula aukera txikiena ere eskaini benetan gertatutakoa azaltzeko. Argi gera dadila, iazkoan, zu oraindik ez zinela Tabirakoko presidente.

- Onartu eta aitortzen dut egindakoaren erantzukizun bakarria nirea dela, joan den astean kaleratutako hitz guzti-guztiak nireak direlako.

- Onartu eta aitortzen dut modu bidegabean jokatu dudala Tabirako osatzen duzuenekin: zuzendaritza, bazkide, entrenatzaile, jokalarik eta boluntarioekin.

- Onartu eta aitortzen dut aurkezpen ekitaldian egin zenuenak (zure hitzaldi osoa euskara hutsean) nabarmen erakusten duela ahozko zein idatzizko hitza betetzen duen pertsona zarela. Baita ausarta eta hartutako konpromisoak betetzeko ahalegina egiten duena ere.

- Horregatik guztiagatik, onartu eta aitortzen dut barkamena eskatu behar dizuedala. Tabirakoko kide guztiei eta bereziki zuri Itsaso, eta bere kexa eta mina idatziz azaldu zidan bazkideari. Gizalegekoa delako eta hala sentitzen dudalako.


Adeitasunez,

Elixabete Larrinaga Artetxe- Kurutziaga Ikastolako presidentea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

**Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.**

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta
ANBOTOren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO



Durangoko Jaiak EGITARAUA

URRIAK 8, ZAPATUA

11:30 Kalejira txikientzat eta hain txikiak ez direnentzat, **erraldoi eta buruhandiek**in, Ezkurditik hasita, Alde Zaharrean zehar.

12:00 Sei Gurpil fanfarreak animatuko du giroa Alde Zaharrean, **Patxikotxuri ongietorria** emateko.

12:30 Patxikotxuren igoera kalejiran, Andra Maritik udaletxera.

13:00 Txupinazoa eta pregoi ofiziala. Durangoko Orfeoia pregoia irakurriko du, eta txupinazoa botako du.

16:00-20:00 *Baserrian* Haur parkea, Ezkurdin.

16:30 Tiragoma lehiaketa, Ezkurdin.

17:00-20:00 Eskulan tailerra, Ezkurdin.

18:00 Kalejira Alde Zaharrean zehar, Nesken Fanfarrearekin.

19:00 *Humanus Comicus* antzezlan, Santa Ana plazan.

20:00 Kontzertua **Tabira Musika Bandarekin eta Eibarko Musika Bandarekin**, Andra Marian.

21:00 Suzko zezena, Ezkurdin.

21:30 Animazioa Alde Zaharrean, **Ghanako txarangarekin**.

21:30 Gu Gira, Landakogunean: Gontzal Mendibil eta Xeberri, Txomin Artola, Erramun Martikorena, Naia Robles, Gorka Knör, Niko Etxart, Pantxoa eta Peio, Xabi San Sebastian taldea.

22:00-01:00 *Dibertitzeko eta zeure burua babesteko errezetak, ideia eta aholkuak*, Goienkalen.

23:00 Helduentzako clowna *Pantxika Lamur* Zirika Zirkus konpainiaren eskutik, San Agustin kulturguneako sarreran.

23:00 Nueva Alaska orkestra, Ezkurdin.

URRIAK 9, DOMIKA

07:00 Diana txistulariekin.

07:30 Zezenak Dira, dultzaineroekin.

10:00-14:00 Mendebalde Urruneko Haur parkea, Ezkurdin.

10:00-14:00 Rokodromoa, tirolina eta jumpinga, Landakon.

10:00 XXXVII. San Fausto margo lehiaketa, San Fausto auzoan.

11:00-14:00 Karioka tailerra, Ezkurdin.

11:00 Kalejira txistulariekin.

11:00 XII. Mikologia Erakusketa, Argazki Mikologikoen XI. Lehiaketa eta Perretxikoak Sailkatzeko Lehiaketa, Merkatu plazan.

12:00-14:00 Arku-jaurtiketarako gunea Landako parkean.

12:00-14:00 Ibilaldiak ponian, Landako parkean.

12:30 Trikitixa Alde Zaharreko giroa animatzeko, Txiri Txirirekin.

13:00 Los Cinco Bilbainos, Andra Marian.

14:00 Bazkaria hirugarren adinekoentzat, Landakogunean.

16:30-19:30 Rokodromoa, tirolina eta jumpinga Landakon.

17:00 Toricos de la Navarreríaren entzierro txikia, Alde Zaharrean.

18:00 Ramon Agirre eta Luna de Mexico Mariatxien kalejira.

18:30 Cabaret parodia zirku ikuskizuna, Ezkurdin.

19:30 Mariatxiak, Andra Marian.

19:30 Gora Gora antzerki taldearen *La terracita de Doña Paula* antzezlan, San Agustin kulturgunean.

21:30 Oceans eta Doktor's Klub kontzertuan, Andra Marian.

22:00 Menta Hirukotea, San Fausto auzoan.

URRIAK 12, MARTITZENA (UMEEN EGUNA)

07:00 Diana txistulariekin.

07:30 Zezenak Dira dultzaineroekin.

10:30-13:00 Txu-txu trena, Landakogunetik.

10:30 Marmitako Txapelketa Merkatu plazan.

10:30-13:30 Familia guztientzako jolasak, Tombs Creatius taldearen eskutik, Ezkurdin.

10:30-13:30 Zoo Park, Ezkurdin.

11:00 Kalejira txistulariekin.

11:00-13:00 Haurrentzako tailerrak, Ezkurdin.

11:30 Eskulan tailerrak, udaletxe plazan.

11:30 Erraldoi eta buruhandiak, Alde Zaharrean.

13:00 XI. Durango Hiria margo lehiaketaren sari banaketa, Ezkurdi udal aretoan.

13:30 Txupinazo txikia eta pregoia, Udaletxeko balkoitik. Ohorezko aureskua. Txupinero txikia: Durangoko Judo taldea.

16:30-19:00 Txu-txu trena, Landakogunetik.

16:30-19:30 Jolasak, Tombs Creatius taldearekin, Ezkurdin.

17:00 Arte Martzialen erakustaldia eta kalejira Alde Zaharrean.

17:00 Guretzat Fanfarria, Durangoko Nagusien egoitzetatik.

17:30 Ezagutu bidegorria, haur motorren kontzentrazioa Andra Maritik Landakoguneraino.

18:30 Txokolatada, Landakogunean.

18:30 Haurrentzako berbena, Landakogunean.

19:00 Kontzertu akustikoa, Usue Martinez eta Aitor Coelloren, San Fausto auzoan.

19:00 Dantza garaikidea, Kukai taldearen Karrikan, Ezkurdin.

20:00 Sugarri show, Alde Zaharrean.

20:00 Anthony Blake *Más cerca*, San Agustin kulturgunean.

21:00 Suzko zezena, Ezkurdin.

22:00 Moya Kalongo taldearen kontzertua, Ezkurdin.

URRIAK 13, EGUENA (SAN FAUSTO EGUNA)

07:00 Diana txistulariekin.

07:30 Zezenak Dira dultzaineroekin.

10:00-14:00 *Baserrian* haur parkea, Ezkurdin.

10:30-13:00 Txu-txu trena Landakogunetik.

11:00-14:00 Giltzariak egiteko tailerra, Ezkurdin.

11:00 Meza Nagusia, San Fausto elizan.

11:00 Kalejira txistulariekin.

12:00 Paella Txapelketaren hasiera, San Fausto auzoan.

12:30 Txalaparta udaletxeko plazan. Ohorezko aureskua eta artopil banaketa. Ondoren, Dantzari Dantza (Platillo Soinua) eta Larraín Dantza, Kriskitin taldearen eskutik.

16:30 Kalejira Sugarri Fanfarreagaz, San Fausto auzoan.

16:30-19:00 Txu-txu trena Landakogunean.

17:00-20:00 Roller, skater eta BMX erakusketa, Ezkurdin.

17:30 Txokolatada eta haurrentzako jolasak, San Fauston.

18:00 Bentazaharreko Mutiko Alaia, Alde Zaharretik.

19:00 Gazte Diskofesta Landakogunean.

19:30 Balkoitik balkoirako bertso saioa, Udaletxeko plazan: Igor Elortza, Amets Arzallus eta Miren Amuriza.

20:30 Habana Con Kola taldearen kontzertua, Andra Marian.

URRIAK 14, BARIKUA

17:00 Gurutze Gorriaren ate irekien jardunaldia, Ezkurdin.

21:00 Ekialdeko dantzen erakustaldia, Andra Marian.

22:30 Bertsolariak San Agustin kulturgunean: M. Lujanbio, A. Egaña, U. Iturriaga, eta E. Abasolo.

23:00 Asier Bilbaoen ikuskizuna, Andra Marian.

23:00 Emon eta Esne Beltza, Landakogunean.

URRIAK 15, ZAPATUA (MOZORRO EGUNA)

07:00 Diana txistulariekin.

07:30 Zezenak Dira dultzaineroekin.

11:00 Kalejira txistulariekin.

11:00 Nekazaritza Azoka, Merkatu plaza inguruan.

11:00-14:00 Txirista erraldoia eta Globo aerostatikoa, Landako ikastetxean.

11:00-14:00 Skate eskola Zutundu elkartearekin, Ezkurdin.

11:00 Umeentzako mozorro tailerra, Andra Marian.

11:00 Tabira Musika Bandaren kalejira Ezkurdi eta Alde Zaharretik.

11:45 Tabira Musika Banda, J.M. Barandiaran egoitzan.

12:00 VII. San Fausto Graffiti lehiaketa, Ezkurdin.

13:00 M'Lomp elkartaren emanaldia, udaletxeko plazan hasita.

13:00 Umeen mozorro kalejira eta sari banaketa, Andra Marian.

16:00 Berbaldia: Zeruaren lehenengo behaketak. Laubideta 6.

16:00-19:00 Makillaje tailerra, Ezkurdin.

16:30-20:30 Federatu gabekoentzako xake txapelketa, Ezkurdin.

17:30 Kiki, Koko eta Moko pailazoaren ikuskizuna, Santa Anan.

17:30 Koheteak egiteko tailerra, Zuhatzola parkean.

18:30 Kalejira Granujas A Todo ritmo-rekin, Alde Zaharretik zehar.

18:30 IV. patata tortilla txapelketa, Merkatu plazan.

18:30 VII. San Fausto Graffiti Lehiaketaren sari banaketa, Ezkurdin.

19:00 Zanguango Teatro-ren *La mecánica de la naranja*, Ezkurdin.

20:00 Txoribigun ikuskizuna, San Agustin kulturgunean.

20:30 Mekano klonikoen kontzertua, Andra Marian.

21:00 Behaketa astronomikoa, Zuhatzola parkean.

22:00-01:00 *Dibertitzeko eta zeure burua babesteko errezetak, ideia eta aholkuak*, Goienkalen.

23:00 Geiser Band orkestra, Ezkurdin.

23:00 Jare, Txarrena eta Oihan Vega, Landakogunean.

00:00-03:00 Alkoholemia kontrolaren stand informatiboa.

00:00-03:00 Testing programa, txosnagunean.

URRIAK 16, DOMIKA (INGURUGIRO EGUNA)

07:00 Diana txistulariekin.

07:30 Zezenak Dira dultzaineroekin.

09:00 XXII. San Fausto Calva Txapelketa, Muruetatorren.

10:00-14:00 Oceano haur parkea, Ezkurdin.

11:00 Parte har ezazu elkartasun jokoetan, Ezkurdin.

11:00 Kalejira txistulariekin.

12:00 Ibilaldiak ponian, Landako parkean.

12:30 Herri kirolen erakustaldia, Ezkurdin.

16:00 Kometa tailerra, Ezkurdin.

16:00-19:30 Kondaira ludoteka: mahai jokoak, Magic txapelketa eta Warhamer erakusketa, Ezkurdin.

16:00-19:30 Birziklapen tailerra, Ezkurdin.

18:00 RecidART ikuskizuna, Landakogunean.

18:00 La Ribera Canta-ren jotak, Andra Marian.

19:30 Biznietos de Celedón fanfarrea, Patxikotxuri agur esateko.

20:00 Kukubiltxoren emanaldia, Landako parkean.

URRIAK 22, ZAPATUA

20:00 XVII. Txistu kontzertua, Landakogunean.

URRIAK 23, DOMIKA

(XLV. UMEEN EUSKAL JAIA)

12:00 Dantza taldeen kalejira.

17:00 Dantza taldeen Alardea, Ezkurdin.



oiZ

M.Z.O ITURGINTZA
GASA BEROGAILUAK
ERAIKUNTZA S.L.

Erakusketa-Denda: Plateruen Plaza, z/g • 48200 DURANGO • Tel.: 946 810 693 • Faxa: 946 818 545
Biltegia: UAI Industriagunea • 2C-48215 IURRETA • Tel.: 946 816 051 • Faxa: 946 818 545



ALKI

barne
dekorazioa

Mikeldi 6, 48200 Durango • 94 681 38 95

Txosnetako egitaraua

URRIAK 7, BARIKUA

20:30: Kalejira Zaparrada batukadarekin, Andra Maritik.
21:00: Txupinazoa eta luntxa.
23:00: Kontzertuak: Bizardunak + Edan.

URRIAK 8, ZAPATUA (GAZTE EGUNA)

12:00: Kalejira trikitilariekin.
14:00: Bazkaria. Ondoren, bertsolariak: Miren Amuriza eta Unai Gaztelumendi.

18:00: Zpeiz Mukaki elektrotxaranga.

22:00: Kontzertuak: Bek + Itziarren Semeak + Zopilotes Txirriaus

URRIAK 9, DOMEKA

11:00: Baserriko produktuen erakusketa eta dastaketa.
12:00: Umeentzako jolasak.
17:30: Bertsoak: Julio Soto, Arkaitz Estiballes eta Onintza Enbeita

URRIAK 12, EGUAZTENA

22:00: The Mockers + Sermonds.

URRIAK 13, EGUENA (SAN FAUSTO EGUNA)

11:00: Paella lehiaketa.
14:00: Sari banaketa.
17:00: Erreka jaitsiera.
19:00: Elektrotxaranga orkestrarekin.

URRIAK 14, BARIKUA

18:00: Tortilla txapelketa. Sari banaketa, 20:00etan.

21:00: Egin dezagun bidea kalejira.

22:00: Kontzertua: Obrint Pas + Zea Mays + Iheskide.

URRIAK 15, ZAPATUA (MOZORRO EGUNA)

19:00: AHTren kontrako kalejira.
22:00: Never Surrender. Ondoren Luhartz.

URRIAK 16, DOMEKA

17:30: Yoko Out + Audience. Ondoren Pantxikari agurra

Kirol egitaraua

URRIAK 8, ZAPATUA

10:00: Esku pilota jaialdia San Fausto pilotalekuan. Antolatzailea: Durangoko Pelotazale Elkarte.

URRIAK 9, DOMEKA

10:00/14:00 eta 16:00/20:00: Futbito Txapelketa 3X3, Landako parkean.
11:30: XXVIII. San Fausto Zesta Punta Txapelketaren finalerdiak. Antolatzailea: Ezkurdi Jai Alai Zesta punta eskola eta Peña Ezkurdi.
17:00: Lehen mailako gizonezkoen saskibaloia partida: Tabirako Baqué-Ardoi, Landako kiroldegian.

19:00: Lehen mailako emakumezkoen saskibaloia partida: Tabirako Baqué-Getxo S.B., Landako kiroldegian.

URRIAK 12, EGUAZTENA

17:00: Arte martzialen erakusketa eta kalejira, Alde Zaharrean. Antolatzailea: Karate Nin Jutsu Wado-Kan kirol kluba.

URRIAK 15, ZAPATUA

09:00/20:00: II. Durango Uria alebin futbol txapelketa, San Jose Jesuitak ikastetxean. Kanporaketak.
16:30/20:30: Xake txapelketa federatu gabekoentzat, Ezkurdiko

aterpean. Antolatzailea: Larrasoloeta Xake Taldea.
Izen-ematea: txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago Ezkurdin.

17:00: 3. mailako futbol partida, Tabira futbol zelaian: Durangoko Kulturala-Arenas

URRIAK 16, DOMEKA

09:00: XXII. San Fausto Calva Txapelketa, Murueta Torren. Antolatzailea: Palentziako zentroko Peña Calvera.
09:30/11:30: II. Durango Uria alebin futbol txapelketako finalerdiak, San Jose Jesuitak ikastetxean. Finalak,

12:00etatik 14:00etara jokatuko dituzte.

11:30 XXVIII. San Fausto Zesta Punta Txapelketaren finala, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.

12:30 Herri Kirol erakustaldia, Ezkurdin.

URRIAK 23, DOMEKA

17:00: Lehen mailako gizonezkoen saskibaloia partida: Tabirako Baqué-Biok Zerbitzuak OKE, Landako kiroldegian.
19:00: Lehen mailako emakumezkoen saskibaloia partida: Tabirako Baqué-Zurt taberna I.S.B., Landako kiroldegian



Ana Camarero

• apaindegia •

FOTODEPILAZIOA

UDAZKENEKO PROMOZIOA:

• Besapeak + Ingleak + hanka erdiak _____ 195 euro

Goienkale 16-1.esk • Tel.: 94 681 73 80 • 48200 Durango



AMAYA

AUTO KONPONKETAK S.L.

UAI, I INDUSTRIAGUNEA (Orozketa errepidea)
48215 Iurreta / Bizkaia
126 Posta Kutxa Durango

Tel.: 94 681 21 23 • Faxa: 94 620 38 18 • emaila: oficina@amayaautoreparaciones.com • www.amayaautoreparaciones.com



IKERFER


primitiba kinielak egunkariak aldizkariak

Ermodo 25 behea. Durango
Tel. 94 681 05 66

Juan Ramon Azkonizaga

Ortuzar auzoa, 1 - IZURTZA Biltegia: 94 681 06 52

Banatzailea:





Jai zoriontsuak opa deusueguz!

anboto

anboto.org



Jaia bizitzeko aukera zabala Durangon

Orfeoia txupinazoa jaurtiko du udaletxeko balkoitik. Txosnagunean Intxaurre elkarteak

Txupinazoa jaurti eta pregoia irakurrita, urriaren 8an eguerdiko 13:00etan emango diete Sanfausto jaiei hasiera.

Durangoko Orfeoia da aurten jaiak martxan jarriko dituen elkarte, Felix Arkarazo presidentearen berbeekin. Txosnagunean jaiei gaur 21:00etan emango diete hasiera, 25 urte bete dituen Intxaurre elkarteagaz.

Udal ordezkariak artopilak banatuko dituzte Udaletxe plazan urriaren 13an, eguerdiko 12:30ean

Tradizio handiko ekitaldi gehiago ere antolatuko dituzte Durangon. Marmitako lehiaketan merkatu plaza sukaldariz beteko da aurten ere. Urriaren 13an, eguerdiko 12:30ean, Udaletxe plazan ohorezko aureskua dantzatuko diete udal ordezkariak. Ondoren, artopilak banatuko dituzte bertaratzen direnen artean. Kriskitin dantza taldeak duela urte batzuk berreskuratu zuen Dandatzari Dantzako *Platilo soinua* dantza eta *Larrain dantza* dantzatuko ditu.

Zezenak dira urriaren 9an, 12an, 13an, 15ean eta 16an antolatuko dute. Goizeko 07:00etan diana eta txistulariekin eguna esnatuko dute, eta 07:30ean bigantxak sokamuturrean aterako dituzte.

Lola Gomez berriztarraren kartela jaiak iragartzen

Durangarrek webgunean bozkatzeko aukera izan dute

Lola Gomez berriztarraren irudiak islatuko ditu aurtengo Sanfaustoak. Durangoko kartelean herriko historia eta arte "aberatsa" jai giroagaz batu gura izan ditu. Guztira, 26 kartel jaso dituzte; horietatik hiru-lauk boto asko eskuratu dituzte udalaren webgunean, eta lehia gogorra izan da.

"Durangok ondare aberatsa du, bai monumentuei bai eraikinei dagokionez. Horiek jai giroagaz batu gura izan ditut", dio Gomezek. Kartelean Andra Mariko portikoa agertu zedin gura izan du: "Santa Anako arkua askotan agertzen da, eta Andra Mariako portikoa ere jaiateko beste toki esanguratsu bat da. Horregatik gura nuen irudia toki horretan oinarritzea". *Zezenak*

dirako une bat islatzen du, bigantxa bere zai dauden lagunei begira dagoela. 'Durango' berbako letra bakoitzaren barruan Durangon esanguratsuak diren eraikineko irudiak sartu ditu: Santa Anako arkua, udaletxeko fresko-pintura, Kurutzia gako gurutzea, Tabirako San Pedro eliza, Mikeldiko idoloa...Ekain amaierako Sanpedro eta Santa Isabel jaietan herriko kartel onenaren saria jaso du lehenengoz.

Kartel honetan Durangoko historia eta arte "aberatsa" jai giroagaz batu gura izan ditu Lola Gomezek



NACEX

San Roke, 12 behe (48200 DURANGO)
Tel.: 94 620 01 62
Mug.: 666 444 101
4810.operativa@nacex.es
www.nacex.es

ondo
pasa
jaietan!

Informazio orokorra: 900 100 000

DURANGO

Acuática Sport - Adolfo Domínguez - Aintza Opriak - Alain Sport - Allprox Supermerkatua
 Alki Decoración S.L. - Alluitz Motor S.L. - Alpino Taberna - Amala - Amala Parafarmazia /
 Dietética - Anboto Taberna - Andreu Dekorazioa - Arana Boutique - Arentza Foto - Arkarazo
 Taberna - Arkupe Taberna - Arri Oinetakoak - Axpe Taberna - Azoka Bodegoia - Azoka S.L.
 Barcelo Bidaia - Bardezi Gizonak - Bardezi Emakumeak - Berezi - Berogi - Beti Alai Janari
 Denda - Bikandi Taberna - Bitácora Gráfica - Bizibike - Boxcalf - Briko-Etxe - Calvin Klein
 Cengotita Loradenda - Los Chicos - Chiloé Urban Wear S.L. - Cien Pies - Crisis - Lurtidos
 Rodríguez - Databi Durango - Dayky Disco Pub - Deelena - Desberdin - Doroti - Drach
 Duer Consultores - Durango Solarium - Echániz Harategia - Eguren - Ekhi Studio - Elcar
 suministro - Erdi Asesoría S.L. - Errekamendi - Esoft - Etxedreams - Euskaltel - Farmanatur
 Fercy - Folder - Gallastegi Harategia - García Ariño Kirolak - Gastelu Jatetxea - Gaur Bodegoia
 Goien Oinetakoak - Gorroño Gortinak - Gorrotxa Jatetxea - Gure Kabiya Taberna - Gutizi
 Hemen - Herria Taberna - Ibaizabal Ikastola - Ikerfer - Ilargi Iluminación S.L. - Instituto óptico
 Irakurri Liburutegia - Iturriaga Zikloak - Iunik - Izaskun Idoiak - K&M Ilek - Kaiala - Karan
 Katazka Taberna - Katy Oinetakoak - Kebi - Kiroldegiko Taberna - Kobika Jatetxea - Kurutzia
 Lakuntza Irudi eta soinua - Landako Optika - Larrinaga - Larrinagatxu Jatetxea - Le Butik
 Leku Berri Taberna - Loiro dekorazioa - Lotería 2 zbk. - Lupass - Lupetza kafetegia - Lurbi
 Garagardotegia - M. Badiola - Maite Taberna - Makallau Etxe - Mancisidor Erlojutegia
 Mango - Mañary S.A. - Maribel harategia urdaitegia - Masvacatas bidaia - Medical Optika
 Mendi - Mercedes Mancisidor - Bitxitegia - Mikeldi Taberna - Misarbe Kafetegia - Momotxo
 Taberna - Montejo Ferreteria - Murgoitio Oinetakoak - Naranja - NK Dekorazioa - NK textil
 Olabegojeaskoetxea harategia - Oliver - Orratz - Osasun Etxe - Otero - Paga Sukaldeak
 Passarella - Pausta Taberna - Pio Larrabe sukaldeak - Pio-Pio - Piso On - Pizeli Barre Diseinua
 Plateruena Kafe Antzokia - Pol-Pol Taberna - Puyse - Rainbow - Royuela Decor S.L. - Rugby
 Taldea Taberna - Sala Gauthier - Saltsan - Sarasua kafe dastaketa - Bilbao Aseguruak - Sillero
 Sistema Descanso Centro Hogar - Snoopy - Soho Oinetakoak - Sorrisi - Susi - Sylke - Tabira
 Oinetakoak - Tabira Color S.L. - Tabira Bitxitegia Erlojutegia - Taket - Telepizza - Tien 21
 Tina Mirón - Trapuzar - Txandre - Txantones Taberna - Txoko Jatetxea - Txoria Nuen Maite
 Taberna - Txukunberri osoko - Tytgatlasa estudio - Udaberri Taberna - Unzueta Eskulangintza
 Urbasa - Urratz kafetegia - Urrestarazu Electronika - Urrike liburutegia - Urtxintxa - Xixilu
 Taberna - X-Treme Kirolak - Zahartzu Karreto Taberna - Zero Taberna - Zubizarreta - Zurea



ABADIÑO

Arriandi Alzariak - Bautista Alzariak eta dekorazioa
 Canon - Mikeldi Ferreteria - Strike - Viento del Este

IURRETA

Gaura Autoak, S.A. - Dólar inprimategia - Pabellón del
 mueble - Aldiak Autoak - Kiñu-Etxe - Baqué Cafés S.A.

IZURTZA

Azkonizaga (Juan Ramón)

TRAÑA-MATIENA

Caribú - Otero jantzizigintza eta gortinak - Zure Denda

ZALDIBAR

Gallastegi Harategia

GOGORATU! Zerrendan adierazten diren establezimenduetan*
 Durango Txartelarekin erosiz gero ondoko promozioetan
 parte hartuko duzu:

Urrian: 10 €ko opari txeke zozketagai

Azaroan: 250 erosketa gurditxo zozketagai

Abenduan: lehenengo hamabostaldian zehar %5eko deskontua zure
 erosketetan, eta 100 erosketa gurditxo zozketagai



Eska ezazu doan zure Durango Txartela hitzarmenera atxikitako
 establezimenduetan, +Dendak merkatari eta ostalarien elkartean
 edo Durangoko Nafarroako Rural Kutxan.

*Ikurrarekin adierazitako establezimenduak Durango Txartelaren hitzarmenari atxikita daude.

San Fausto Jaiak 2001



Hainbat abeslari ezagun Gu Gira kantaldian

Edan taldeak gaur eskainiko du azken kontzertua txosnetan; 14 taldek bisitatuko dute Pinondo

Hainbat euskal kantautore-
ren bisita jasoko du bihar
Landako Guneak, Gu Gira
ekimenean. 21:30ean hasi-
ko den kantaldian Gontzal
Mendibil eta Xeberri, Txomin Artola,
Urko, Naia Robles, Gorka Knörr, Niko
Etxart, Pantxoa eta Peio eta Xabi
Sansebastianek kantatuko dute.

Aurretik, baina, parranda eta dantza
giroa egongo da gaur bertan
Txosnagunean, Bizardunak eta Edan
taldeekin. Edanek, gainera, otsailean

hasi zuen bira amaitutzat emanez,
azken kontzertua izango du gaurkoa.

Denetariko musika egongo da
Sanfaustoetan: Landakogunean Esne
Beltza, Emon, Txarrena, Jare eta Oihan
Vega izango dira, besteak beste. Rock
Izar Eskolaren Durango Saria maketa
lehiaketako kontzertua ere izango da
urriaren 11n Andra Marian: Oceans eta
Doktor's Klub. Txosnetan 14 taldek jar-
dugo dute; tartean Itziazaren Semeak,
BEK, Sermonds, Iheskide, Obrintpas, Zea
Mays, Never Surrender eta Audience.

Antzerkia, magia eta klowna aukeran

'Karrikan' plazaratuko du Kukaik Ezkurdin, eta
Zirika Zirkusek 'Pantxika Lamur', San Agustinen

Dantza, magia, antzerkia eta klown
ikuskizunak. Arte eszenikoen zaleentzat,
askotariko aukera batzen dute
Sanfaustoek egunotarako. Gaur bertan,
Niño Costrinik *Humanus Comicus* aur-
keztuko du Santa Anan; San Agustin
kulturgunean, berriz, Zirika Zirkusek
Pantxika Lamur klowna.



Zirko ikuskizuna da Circos Los talde-
ak urriaren 9an Ezkurdin eskainiko
duena ere: *Cabaret parodia*. Bertan era-
kutsiko du Kukaik bere *Karrikan* ikuski-
zuna, urriaren 12an; eta, 15ekoa, berriz,
Zanguango Teatroren *La mecánica de la
naranja* obraren txanda izango da.

Anthony Blaken magiak hartuko du
San Agustin 12an, eta bezperan *La
Terracita de Doña Paula* antzeztuko du
Gora Ta Gora taldeak. *Txoribigun* arte-
anitzeko ikuskizuna urriaren 15ean
izango da, eta Kukubiltxo izango dute
lagun jaiak agurtzeko.

**Anthony Blake mago
entzutetsua igoko da San
Agustin kulturguneko
oholtzara urriaren 12an**

Zesta eta hiruko futbitoa kirol jardueren erakusle

Zesta txapelketako finalaurrekoak domekan dira; xake eta arte martzial erakustaldiak ere badaude

K irol arloko ekitaldiei dagokienez, XXVIII. San Fausto Zesta-punta Txapelketaren irabazleak erabakiko dira domeka honetan eta hurrengoan. Etzi, 11:30etik aurrera, finalaurrekoak jokatuko dituzte. Lehenengo partidari Mutrikuko Beitia eta Gotzon Gernikako Bilaburu eta Kurruren kontra lehiatuko dira; bigarrenean Andoaingo Aizpuru anaiek Noaingo Iturbide eta Bailo izango dituzte arerio. Andoain finalera sailkatzeko faborito argia da; beste fina-

laurrekoan pronostikoak zabalik daude. Finala urriaren 16ko domekan, 11:30etik aurrera, jokatuko dute.

Domeka honetan bertan jokatuko den 3X3 futbito txapelketak ere ikusmin handia sortu du. 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara batuko dira Landako parkean.

Bestalde, urriaren 12an, 17:00etan, arte martzialen erakustaldia egingo du Nin Jutsu Wako-Kan klubak eta hilaren 15ean, 16:30ean xake txapelketa egingo dute Ezkurdiko aterpean.



J. de la Cruz

Kalea beti izan delako jolasgune naturala

Tombs Creatius taldeak eurek sortutako joko sorta gaztetxoek eskura ipiniko du urriaren 12an



Urriaren 12an, Kataluniako Tombs Creatius taldeak erronka botako die Ezkurdin batuko diren gaztetxo eta gurasoei. Irudimena lagun, eurek sortutako jokoetan jolastu ahalko dute guztiek. Eskuz jolasteko jolasak dira, eta entretenimenduaz gainera adimena ere eskatzen dute. Gainera, jolas horiek kalean erakutsi gura dituzte: "Kale beti izan da jolasteko espazio naturala, eta

aspaldian funtzio hori galtzen ari da", aldarrikatzen dute. Goizez 10:00etatik 13:30era eta arratsaldeaz 16:30etik 19:30era egongo dira.

Horrez gainera, gaztetxoek erraldoi eta buruhandiekin gozatu ahalko dute bihar goizean. Ausartenek ponian ibili ahalko dute urriaren 9an goizez, eta arratsaldean rokodromoa eta tirolinak egongo dira Landako Gunean.



DURANGOKO TXOSNAK

JAIK HERRITIK HERRIARENTZAT

SAN FAUSTOAK 2011



7
BARIKUA URRIAK
20:30 KALEJIRA
ZAPARRADA
BATUKADAREKIN
21:00 TXUPINAZOA +
LUNTXA
23:00 **BIZARDUNAK +
EDAN**

8
ZAPATUA URRIAK
GAZTE EGUNA
12:00 KALEJIRA
TRIKITILARIEKIN
14:00 BAZKARIA
ONDOREN BERTSO SAIOA
MIREN AMURIZA
UNAI GAZTELUMENDI
18:00 SPACE MUKAKI
ELEKTROTXARANGA
22:00 **BEK + ITZIARREN
SEMEAK +
ZOPILOTES
TXIRRIAUS**

9
DOMEKA URRIAK
11:00 BASERRIKO
PRODUKTUEN
ERAKUSKETA
12:00 DASTAKETA
UMEENTZAKO
JOLASAK
17:30 BERTSO SAIOA
ARKAITZ ESTIBALLEZ,
JULIO SOTO ETA
ONINTZA ENBEITA

12
EGUAZTENA URRIAK
22:00 **THE MOCKERS +
SERMONDS**

13
EGUENA URRIAK
SAN FAUSTO EGUNA
11:00 PAELLA
TXAPELKETA
14:00 SARI BANAKETA
17:00 ERREKA JAITSIERA
19:00 ELEKTRO-
TXARANGA
ORKRESTAREKIN

14
BARIKUA URRIAK
18:00 TORTILLA
TXAPELKETA
20:00 SARI BANAKETA
21:00 EGIN DEZAGUN
BIDEA KALEJIRA
22:00 **IHESKIDE
OBRINT PAS
+ ZEAMAYS**

15
ZAPATUA URRIAK
MOZORRO EGUNA
GAIA: ITSASOA
19:00 AHTAREN
KONTRAKO KALEJIRA
22:00 **NEVER
SURRENDER**
ONDOREN
LUHARTZ

16
DOMEKA URRIAK
AGUR SAN FAUSTO
17:30 **YOKO OUT +
AUDIENCE**
ONDOREN
PANTXIKARI
AGURRA



Eguneko eskaintzak lekua izango du txosnagunean

Gaur iluntzean jaurtiko dute txosnazaleen txupinazoa

Txosna Batzordeak Pinondon hartuko du lekua gaurtik aurrera, eta urriaren 16ra arte jai-giroa mantentzen saiatuko dira, egunez zein gauez. Txosnek orokorrean gauez eduki arren arrakastarik handiena, Durangon eguneko egitarauari ere garrantzia eman gura diote, adin guztietako jendeari begirako ekitaldiak eratzeko aprobetxatuz.

Gaur, iluntzeko 20:30ean, batukadagaz batera kalejira egin eta 21:00etan hasiko dituzte jaiak Pinondon, txupinazoagaz. Intxaurre elkarteak jaurtiko du suziria, bere 25. urtemuga dela-eta.

Egunekoa indartuz

Etziko eguna, domeka, egun aproposa izan daiteke aparteko egitarau hori ezagutzeko. Goizean baserriko produktuen erakusketa antolatuko dute, eta, gainera, eguerdi aldera produktu horiek dastatzeko aukera ere eskainiko dute. Guraso zein umeentzako plan era-

Domeka goizean baserriko produktuen erakusketa eratuko dute; eguerdian dastatzeko aukera ere eskainiko dute

Gazteentzako eta mozorrozaleentzako egun seinalatuak

Azken urteetako ohitura bihurtu da Sanfaustoetan Gazte Eguna ospatzea. Durangoko gazte mugimenduak biharko ekitaldietan parte hartzera deitu ditu gazteak; bazkaria, bertsoak eta musika sartu dituzte eguneko menuan. Eguerdiko 12:00etan kalejiran hasi eta 14:00etarako mahaian batuko

kargarria eratu dute, azken horientzako jolasak ere prestatuko dituzte-eta txosnagunean bertan. Arratsaldean, 17:30ean, bertso saioaren txanda izango da Arkaitz Estiballes, Onintza Enbeita eta Julio Sotogaz.

San Fausto eguna

Bestalde, ezin ahaztu San Fausto eguneko ekintzak, paella lehiaketa eta erreka jaitziera tarteko. Kontzertuak ere ez dira faltako Txosnagunean: Obrint Pas, Bizardunak, Zea Mays, Edan, Iheskide, Luhartz...

Urriaren 16an, jaiak amaitzeko Yoko Out eta Audience taldeen kontzertua antolatu dute, Pantxikaren agurra baino lehenago.

dira gazteak. Bertsoarako Miren Amuriza eta Unai Gaztelumendik jardungo dute, eta txaranga ere ekarriko dute iluntzerako.

Mozorro Eguna urriaren 15ean izango da aurren, eta Txosna Batzordeak gaia proposatu du: itsasoa. Gai horretatik abiatuta, bakoitzak bere irudimena erabili beharko du mozorroagaz itsaso zabaleko protagonista- ren bat irudikatzen.

Bestalde, aldarrikapenak urriaren 14an eta 15ean hartuko du lekua, 'Egin dezagun bidea' eta AHTaren kontrako kalejirekin.

SEGUROS BILBAO Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

Askatasun Etor. 1
48200 Durango
Tel.: 94 681 17 79
Faxa: 94 620 19 23
email: agarro@segurosbilbao.com

Aitor Garro Mendiolarai

AGIRREZABAL
DURANGO
C.P. 48200
e.aguirrezabal@euskalnet.net

elektrotresnak
Tel.: 94 620 22 84
Fax: 94 620 22 84
Juan Antonio Abasolo, 10

zikloak
Tel.: 94 681 03 88
Fax: 94 620 22 84
fco. ibarra, 7 mikeldi

maida
arropa eta osagarriak

Andra Mari plaza, 8 - Durango

Nafarroa, 13 - Zornotza

makowa
moda eta krolak

askatasun etorbidea 5 • Durango • 94 681 74 83

CHAVES

TAPIZAK
MOKETAK
ALFONBRAK
GORTINAK

LARRUKIAK
LANERAKO BABES-JANTZIAK
INDUSTRIAKO HORNIGAIK

DENDA ETA ERAKUSKETA:
Erretentxu, 28 behea
DURANGO

Tel.: 94 681 11 80
Faxa: 94 620 09 38

Erritmo kubatar eta afrikarrekin gozatzeko aukera

Mundu zabaleko musika entzuteko hainbat aukera egongo da Sanfaustoetan. La Caixaren obra sozialak antolatuta, urriaren 12an Moya Kalongo taldeak afro-beet estiloko kontzertua eskainiko du Ezkurdin, eta San Fausto Egunean musika kubatarra eskainiko du Habana con Kolak. Kontzertu horiek 'Diversions gizar-teratzeko musika' zikloaren barruan daude.

Moya Kalongo taldeak kontzertua eskainiko du hilaren 12an; San Fausto Egunean, Habana con Kolak

Durangoko talde bik, bestalde, Afrikako doinuak plazaratuko dituzte; M'lomp-ek Senegaleko doinuak eta dantzak erakutsiko ditu, eta Charanga de Ghana txarangak jendea dantzan ipiniko du.



'Euskaraz bizi nahi dut' aldarrikatuz

Durangoko euskalgintzako eragileak 'Euskaraz bizi nahi dut' ekimenean batu dira lehenengoz

Jaiak aldarrikapenerako baliatuko dituzte Durangon euskalgintzan diharduen hainbat eragilek. Berbaro, Euskal Herrian Euskaraz, AEK, Udal Euskaltegia, Ibaizabal ikastola, Kurutziaga ikastola, Plateruena kafe antzokia, Hizkuntza Eskola eta Anboto astekariak *Euskaraz bizi nahi dut* ekimena martxan jarriko dute jaietan.

Ezkurdin, Andra Marian eta Plateruenean urriaren 8an, 13an eta 14an, 19:00etan hitzordua jarri dute. Egun bakoitzean proposatutako lekuetan *Euskaraz bizi nahi dut* esaldiaren zati bat idatziko dute. Kartelak kalean jarriko dituzte zelan osatzen doazen ikusteko. Bertaratzen direnek, letrak margozteaz gainera, lekukotasunak idazteko aukera izango dute.

Durangoko euskalgintza batzeko lehenengo pausoa jaietan egin dutela eta hemendik aurrera elkartzeko gune honek jarraipena izan dezan gura dutela azaldu dute bultzatzaileek.

Deialdi zabala

Ekimenaren antolatzaileek azaldu dute-nez, herritarrei parte hartzeko deialdi zabala egiten diete. Urriaren 14an, 20:00etan Plateruenean elkartuko dira ekimenari amaiera eman eta familia argazia ateratzeko.

Ezkurdin, Andra Marian eta Plateruenean da hitzordua urriaren 8an, 13an eta 14an

Durangoko euskalgintza batzeko lehenengo pausoa da, eta jarraipena izatea gurako lukete



Hemen, Kafeari Baqué esaten diegu

baque.com



BODEGAS Launa
Arabak Etxerak
www.bodegaslauna.com
info@bodegaslauna.com
Tel.: 94 682 41 08

altzariak
gandarias

Etxerako dekorazioa

Ermodo kalea, 13-25
Tel.: 94 620 26 64
DURANGO

Arkotxa kalea, 8
Tel.: 94 681 07 22
DURANGO

Hitz
liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitliburudenda.com
946 810 776

ALMACENES ARRASATE

TIEN 21



Intxaurrondo, 12 behea
Tel.: 94 681 34 85
48200 DURANGO

Kataide Industriegunea, pab.3 • 20500 Arrasate-Mondragon
Tel.: 943 77 13 52 - 77 00 34 • Fax: 943 77 13 13



 2 Clase 1000 b/min 6 kg A+ Salkapen energetikoa GARBIGAILUA ALF 1106 260 € aspes	 2 Clase 1000 b/min 6 kg A+ Salkapen energetikoa GARBIGAILUA WAE20010EE 345 € BOSCH	 2 Clase 1200 b/min 6 kg A++ Salkapen energetikoa GARBIGAILUA 3F2612 315 € FAGOR	 2 Clase 1200 b/min 7 kg A++ Salkapen energetikoa GARBIGAILUA L-72750 385 € AEG	 2 Clase 1400 b/min 7 kg A+ Salkapen energetikoa GARBIGAILUA WM14E465EP 410 € SIEMENS
 KAPSULADUN FAGOR KAFETERA OPARI 2 Clase 1200 b/min 8 kg A++ Salkapen energetikoa GARBIGAILUA F-4812 485 € FAGOR	 2 Clase A+ Salkapen energetikoa LEHORGAILUA 2LF-0139X 399€ FAGOR	 2 Clase IF-3BS/BX INDUKZIOA 435€ FAGOR	 2 Clase A+ Salkapen energetikoa LABE PIROLITIKOA 6H-760AX 460 € FAGOR	 2 Clase A Salkapen energetikoa INDUKZIOZKO PLAKA HK-633220 950 € AEG
 2 Clase 1440 X 545 X 600 A+ Salkapen energetikoa HOZKAILUA ZEN-F211 310 € edesa	 "BRITA" OPARI 7 Clase 1850 X 600 X 600 A+ Salkapen energetikoa HOZKAILUA FFJ-6725 575 € FAGOR	 7 Clase 1850 X 600 X 600 A+ Salkapen energetikoa HOZKAILUA FFK-6735X 640 € FAGOR	 KAPSULADUN FAGOR KAFETERA OPARI 7 Clase 2000 X 600 X 600 A+ Salkapen energetikoa HOZKAILUA F-7148NFXDS 699 € FAGOR	 2 Clase 2000 X 600 X 600 A+ Salkapen energetikoa HOZKAILUA KGN 39VI20 660 € BOSCH

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. MCCko kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.

			
ETXERAKO ZERBITZUA, ZAHARRA ERAMANGO DA	MERKEGEO TOPATUZ GERO DAGOEN ALDEA BUELTATUKO DA	GUSTURA GERATU EZEAN DIRUA BUELTATUKO DIZUGU	*dendak-eko "DURANGO" TXARTELA ERABILGARRI

“Herritik gertu egon da beti gure orfeoia”

Durangoko Orfeoiaren izenean, Felix Arkarazok irakurriko du zapatuan pregoia. Herriari esker ona berbaz erakutsiko diote bihar; hilaren 15ean, kantuaren bitartez

Zelan jaso zenuten pregoiaren albistea?

Duela gutxi izan da. Udaleko batek abisua luzatu zidan, arratsaldeko 19:00ak aldera, eta egunean bertan entsegu geneukan 21:00etan. Albistea pozez, zarataka eta saltoka hartu zuten orfeoi-ko kideek; izan ere, albiste pozgarria izan da.

“Inork zaletasuna badauka atear zabalik dauzkagu Orfeoian. Onena kantuak berez dakarren gozamina da”

Zelakoa izango da pregoia?

Laburtzua izango da. Uste dugu pregoilari Orfeoia izan arren, benetako protagonista Durangoko herria dela, eta momentu horretan ez da egongo diskurtso luzeetarako. Esker ona erakutsiko diegu udalari eta herriari, eta jai onak opatuko ditugu.

Zuen lanari egindako aitortza lako bat da?


Azalpen zehatzik ez digute eman, baina baietz esango nuke. Kontuan hartu behar dugu Udal

Bandagaz batera Durangoko elkarerik zaharrena dela Orfeoia. Data zehatzik ez dago, baina 1882an El Durangues izeneko aldzkarian agertzen da lehenengoz Orfeoiaren emanaldi baten albistea, beraz, ordurako sortuta zegoen. Ordutik hona Durangon nahiko sartuta egon da Orfeoia, eta azken urteotan, batez ere, ahalegina egin dugu herrian gertukoagoko bihurtzeko. Horren bidetik berreskuratu ditugu kantu errondak, Santa Ageda bezperan, gabonetan eta Santa Zezilia egunean. Jaietan ere kantu erronda egiten hasi gara.

Kantu errondan nondik nora ibiliko zarete?

Urriaren 15ean izango da, 13:00ak aldera. Beheko tabernetan hasiko gara, eta ibilbide zabaltxoa egingo dugu; ez gara Goienkalera mugatuko. Amaitu han egingo dugu, moztortuta dauden koadrilek kantatzen uzten

“Jendeari asko gustatzen zaio kalean kantuan ibiltzea. Kantu errondekin herritarrengana gerturatu gura dugu”



badigute! Lehen arratsalde-iluntzean hasten ziren koadrilak irtezen, baina orain eguerdirako Goienkale jendez beteta egoten da, eta batzuk karrozekin eta musikarekin joaten direnez, ez da erraza han kantatzea.

Zer nolako eguna izaten da?

Oso polita. Aspaldi konturatu ginen jendeari tabernetan kantua entzutea asko gustatzen zaiola. Kanta ezagunak izaten dira, eta jendeak disfrutatu egiten du kantatzen. Errondak formatu informal batean orfeoiagaz batera egoteko aukera ematen du.

Eszenatoki gaineko ohiko iruditik aparte...

Bai. Hori ere egoten da, eta ibiltzen gara kontzertuak eskaintzen, beste abesbatza batzuekin elkar-

trukeak egiten, birak... ekintza horiek mantendu egin dira. Kalera begirako ekintzekin herritarrengana gerturatu eta gonbidapena egin gura diegu, parte hartzeko eta, zergaitik ez, orfeoikide izateko ere bai: inork zaletasuna badauka eta abentura honetan parte hartu gura badu, atear zabalik dauzka.

Abenturatik zer nabarmenduko zenuke?

Funtsezkoena niretzat kantuak berez dakarren gozamina da. Gero, horri lotuta, koru baten inguruan hainbat bizipen egoten da: ospakizunak, kontzertuak, birak, elkarrekin egote hori, konpartitzea, talde moduan pozak eta atsekabeak bizitzea... Abesbatzakoa bizimodu berezia da, eta berezitasun hori oso gozagarria eta aberasgarria da.



ALLUITZ MOTOR, S.A.



Comercial AUDI
Estanislao Labairu, 3
Telf.: 94 621 73 27
Fax: 94 620 10 75
48200 DURANGO



Comercial VW / Taller Alluitz, z/g.
Telf.: 94 620 20 04
Fax: 94 620 09 98
48200 DURANGO

gutunak@anboto.org

Gogoetak, kanpotik barrura eta barrutik kanpora

Parkearen zelai ertzean eserita dago gaztea, udazkenaren atarian egon arren edo egon dagoelako eguraldi epelean begiak itxi ditu. Bazkaltzera joan orduko zurezko aulki luze batean eseri eta eguzki printzez gozatzeko tarte hartu du.

Patxada.

Azken denboretako zurrumbiloez ez da nolanahikoa izan (hasi da buruari bueltak ematen), hain zuzen askatasuna bera nolanahikoa zurrumbiloez ez baita (jarraitu dio pentsamenduaren ildoari).

Eguerdiko eguzki printzek aurpegian laztan egiten diote.

Begiak itxita, hots bat aditzen hasi da, apurka-apurka beregana hurbiltzen doan hotsa. Jada suma dezake (bada-ki) zaratatxo horrek, gero eta nabarmenagoa den zaratatxoak, gero eta ezagunago denak, beste norabait eramango duela.

Badator zaratatxoa, alai eta bere melodia inozentean gupida gabe. Orain bai argi eta garbi, zarata metalikoak, eskuan dantzan dabilten giltzen zarata metalikoak, hain urruti ez den garai batera, beste garai horretako testuetara bidali du, kolpez:

“Bizi zikloen aldaketa adierazteko parabola eder batekin topo egin dut ARGIAN. Bertan azaltzen denez, arranoak 70 urteko bizi esperantza omen dauka. Baina 40 urte ingurura iristean, bere naturak, erabaki baten aurrean ezartzen du : Alde batetik, dagoeneko gogorak ere ez diren moko zein atzaparrekin eta urteek erasandako lumekin modu bайтеpadakoan bizi-edo.

Bestetik 150 egun irauten duen eraldaketa prozesu bati ekitea dauka; haitzetako arrakalaren batean gorde eta bere mokoa hormaren kontra kolpeka erauzi behar du. Moko berria hazten delarik, hatzapar eta luma zaharrak erauzi behar ditu gero. Prozesu honi ekinda soilik biziraun lezake arranoak beste 30 urtez.

Eta nire burua irudikatu dut. Izugarrikeria honetatik libratuko naizen egunean zenbat gauza erauzi beharko dizkiot nire izateari? Parajeotan denbora igaro ahala, hatzaparrak eta mokoa atera zaizkio nire bihotzari, ehizatze bako bako ehi-zatua izan ez dadin. Lumak, aldiz, ugari eta eder-ederrak nituen baina orain enbarazu besterik ez didate egiten. Izatearen arrakalak, arima edo dena delakoaren zauriak, nola senda litezke? Ezen barren horretan eragiten du inguratzen nauen bakarmortu honek. Sarriren hitz batzuen oihartzunak zera diost, preso izandakoak ez duela sekula ziega atzean uzten. Panoramie.

Eta nire burua irudika dezaket, ur jario baten azpian, nire azalean beheara doan emariak tarte honetan bildutako lohia garbituko balu bezala. Kontua da halako dohainak dituen iturririk baden edo dagoeneko, zirenak, porlanak irentsi ote dituen. Bitartean alkandoran gordeko dut arranoaren parabola, bihotzaren ondoko patrikan.

Villefranche sur Saône 2010eko azaroak 29.”

Eta hitzak hor gelditu dira atzo eta gaurko gaztearen, gure egoeraren artean zubi lana egiteko.

Giltzen dilinda metalikoa joan da jada, eta porlanez beteta aurkitu ditugu bazterrak, baina baita, eta batez ere, por-

lanari gainezka eginez, barruan akumulatutako zikina garbitzen lagundu digun ur jarioa.

Geldirik ez dagoen herri baten zainetan gora eta beheara doan elkartasun jarioa, gaur hemen bildu garenon artean bizi-bizi mantentzen den elkartasun jarioa.

Guk sentitu dugun elkartasuna, bai barruan zein kanpoan, eta ondorengoa esateko asanblada berezirik egin behar ez dela iruditzen zaigunez: Eskerrik asko, barruan jarraitzen duten durangarren izenean, eskerrik asko benetan, bari-kuro euskal presoan aldeko enkarteladan biltzen zareten guztioi.

Oier Gonzalez Bilbatua - Durangoko preso ohien izenean

Klik batean @



Seinaleztapen ezberdinak

Iurretarratek salatu duenez, Maspeko parkinean elbarrientzako lekuak horiz margotuta daude, eskumaldean daudenak ezik; azken hau zuriz dago. Bertan aparkatzeagatik 200 euroko isun bi jaso ditu, eta berak uste du ez dela egokia. “Berdin seinalatzatu beharko lirateke, erabileraz kanpo daudela ematen du-eta”.

Sei hankako mahaia



Juan Jose Gastañazatorre
PP

Duangoko San Fausto jaiak

Gure udalerriko jai nagusiak hastera doaz, herritarren zein kanpotik bisitan etorriko zaizkigunen gozameneko.

Jai Batzordea osatzen duten pertsonen lan desinteresatu eta altruista ikaragarria onartu behar dugu.

Aipatu beharrekoa da durangar askok izan beharko duten pazientzia ere, baina ulertu beharra dago Sanfausto Jaiak direla, eta urtean behingoak ez duela kalterik egiten.

Jai batzordea osatzen duten pertsonen lan desinteresatu eta altruista ikaragarria onartu behar dugu

Txosnen kokaguneari dagokion gai polemikoa, aurtengoz Gobernu Taldeak eta Txosna Batzordeak adostu dute agertu duten presagatik (guk dudatan jartzen dugun kontua), datozen urteetarako balizko kokaguneari Kultura Batzordean aztertze konpromisoa hartuz.

Poztu egiten gara Durangoko Orfeoia, hain historia luzea duena eta jarduten duen leku orotan bere gaitasuna erakusten duena, izan delako gure jaien txupinero izateko hautatua.

Sanfaustoa jai zoriontsuak.

Poztu egin gara Durangoko Orfeoia izan delako gure jaien txupinero izateko hautua

*Erredakzioan itzulita



Laguntzailea:



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak
2011ko urriaren 7a - 10. urtea - 431 zk.

Eta honako udal guztiak:



Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazio burua:

Itziar Belar.

Administratzailea: Miren Abasolo.

Publizitatea: Goretzi Alonso,

Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri,

Itsaso Esteban, Markel Onaindia,

Amaia Ugalde.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilaria: Kepa Aginako eta

Juanra de la Cruz.



**AUKERAKO AUTOREN BAT INTERESATZEN
BAZAIZU, KONFIANTZAZKO BESTE TAILER
BATERA ERE ERAMAN ZENEZAKE ONDO
AZTERTZERA NAHI IZANEZ GERO.**

*Andonik
esana*

Andoni Baños,
Gaurako Aukerako
Ibilgailuen Arduraduna



**RENAULT MÉGANE
DYNAMIQUE**

1.5 dCi 105cv. Año 2010.

14.800€

**RENAULT
OCASIÓN**

ZUK DENA NAHI DUZULAKO.

PSP transferentzia gastuak barne. 11/09/30era arte edo izakinak amaitu arte balio duen eskaintza.
Ikustarazitako eta eskainitako bertsioak desberdinak izan daitezke.

GAURSA AUTOAK

ARRIANDI 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA. GRAN VÍA 65. TEL. 94 441 74 50. BILBAO. www.gaursaautoak.com



KIROLAK >

“Zegama-Aizkorriren pare izango da Anboto Bertikala apurka-apurka”



Goi mailako atletak ez ezik lagun onak ere badira, eta diotenez hori da Euskal Seleizioak lortutako arrakasten arrazoietako bat.

Oihana Azkorbebeitia (Abadiño, 30 urte) eta Oier Ariznabarreta (Durango, 28 urte) izan dira Durangaldeko ordezkari onenak Anboto Kilometro Bertikalean. Azken horrek Euskadiko Txapelketa irabazi du.

Zuk Oier 40.33ko denbora behar izan zenuen lasterketa osatzeko; zuk Oihana 51.15ekoa. Zelan baloratzen duzue zuen jarduna?

Oier: Etxekoak-eta irteeran zeuden ni animatzen, eta topera hasi nintzen. Ondorioz, Zabaletatik gora oinez eta ahoa zabalik joan nintzen, justu, errekuaratu guran. Sentzazioei bakarrik erreparatuta, ez nintzen gustura ibili: bero handia, ahoa siku... Baina zazpigarren postuari eta denborari dagokionez, oso pozik nago. **Oihana:** Ni oso pozik nago. Uztai-lean amaitu nuen denboraldia, eta Anbotoko lasterketa lasaitasunez hartu nuen. Beroagaz gehiago kostatzen zitzaizkidan eta hasieran apur bat itota ibili nintzen, baina apurka-apurka gora egin nuen.

Aurten lasterketa nazioartera zabaldu dute. Zer deritzozue?

Oihana: Nik ondo deritzot. Nazioartereko onenak etorri dira, baina aldi berean herrikoia ere izan da; inor ez dute kanpoan utzi, azken egunean oraindino bazegoen tokia izena emateko. Onenekin

ikusmina ere handiagoa da.

Oier: Apurka-apurka Aizkorri-Zegama bat bihurtuko dela uste dut: sari inportanteak ematen dituzte, horrek atletak erakartzen ditu... Aurten giro itzela egon da, jende asko batu du.

Aurten lehenengoz Anboton erabaki da Euskadiko txapelduna, eta zeuk irabazi duzu, Oier.

Oihana: Txapeldun!

Oier: Oso pozik nago. Urte hasieran Euskadiko Txapelketa etxean jokatu zela jakin nuenetik, egutegian markatuta izan dut egun hori. Entrenamendu onak eta gogorrak egin ditut, eta emaitza ona eman didate.

Kortazar hor egonda, emakume-etan gaitza zen pentsatzea Euskadiko txapelak beste jaberik izan zezakeenik.

Oihana: Banekien ez Oihanaren ez beste hainbaten kontra ez nuela zereginik. Egia esan behar badut, azken unean enteratu nintzen Euskadiko Txapelketa jokozan zegoela. Nik beste helburu batzuk nituen; gora heltzea eta lasterketaz disfrutatzea.

Oihana, orain urte bi egindako elkarrizketan komentatu zenidan parentesi bat egingo zenuela, baina harrezkero lasterketa askotan jardun duzu.

Oihana: Egia da, baina begira: oraintxe hasiko dut parentesi hori. Sei urte daramatzat arineketan, eta apur bat nekatuta dago. Aurrerantzean lasterketetan parte hartzen jarraituko dut, baina nire eritmoan, konpromiso barik.

Oier, oraintsu Espainiako Lasterketa Bertikalean bigarren amaitu duzu, Jesus de la Morenaren-gandik zazpi segundora.

Oier: Pena izan zen. Anboto Kilometro Bertikalean minutu biko alde atera diot, beraz, nire mendeku txikia hartu dut.

Zure unerik onenean zaude?

Oier: Ez dut uste. Txirrindularitzan ibili nintzenean profesioalera igotzeko ateetan geratu nintzen. Ikasketengatik utzi nuen, pena handiagaz gainera. Aurten hasi naiz mendian serio.

Euskal Seleizioak denboraldi oso ona osatu du.

Oier: Giro ona dago, lagun taldea gara, eta hori igarri egiten da. Lehiatzera goaz, baina ondo pasatzera ere bai.

Giro hori ez duzu faltan botako?

Oihana: Arineketan ez, baina Eneko eta Kepa hautatzaileekin batera jarduteko asmoa daukat. Gustatu egiten zait mundu hori.

Oier: Beraz, ez zaitut begi bistatik galduko...

Oihana: Kostako zaizu!

Aurrerantzean zer helburu duzu?

Oier: Onenekin lehiari ibili gura nuke, baina ez da erraza...

Oihana: Ibili zintezke, duda barik, baina batzuetan egiten dituzu zuk ere egitekoak! Anboton gora hasieratik topera irtetea ere! Lehenengo urtea ere bada... ikasiko du.

Oier: Egia da, aurten hasi naiz lasterketa hauetan, eta ez nekien ondo zelan jokatu. Azkeneko apur bat ikasi dudala uste dut; indarrak gordetzen jakin behar da. Datorren urtean gorago ibiltzeko itxaropena daukat.

Oier: “Datorren urtean onenekin lehiari ibiltzea dut helburu”

Euskal Seleizioa munduko onenen artean dago?

Oier: Onena da!

Oihana: Oierrek barrez dio, baina Italian lehiatutako lasterketa bateko ibilbidea laburtu egin zuten eguraldi txarragatik, eta gure ordezkariak galdu egin ziren bidean. Galdutako puntu horien-gatik ez genuen irabazi taldeko Munduko Kopa. ■ J.Derteano

Arrasate eta Ibarrondoren kolpeek erabaki zituzten finalak

Pablo Berasaluze Txapelketa-ko kadeteetako lehen finalean Elorriagak eta Arrasatek 22-21 menderatu zituzten Bakai-koa eta Barriola. Emozio handia egon zen, baina joko gutxi. Arrasateren kolpeak erabaki zuen lehia. Kadete-gazte mailako finalean Zubikarai eta Ibarrondok 22-11 irabazi zituzten Dario eta Uriber. Ibarrondoren pilotakada bi ia errebotera heldu ziren.

Profesioalengan Apraiz eta Arretzek 22-13 menderatu zituzten Berasaluze VIII.a eta Albisu; markagailuari buelta eman zioten, 13-3 galtzen hasi baitziren. ■ J.D.

Zulatu batek aukera barik utzi du Murgoitio

Joan zen asteburuan Belgikako Kalmhout herrian lehiatu zen Hirumet Taldeko Egoitz Murgoitio txirrindularia. Ez zuen hasiera ona egin, eta, gainera, bigarren itzulian gorpila zulatu zuen. Atzetik aurrerako ahaleginak 20. postua eman zion azkenean, baina puntuetatik kanpora geratu zen: “Gorpila zulatu ez banu, lehenengo hamabosten artean egoteko aukerak nituen. Pena da, baina sentzazio onak izan ditut, eta horrekin geratuko naiz”.

Ziklo-krosak ez du atsedenik hartuko. Asteburu honetan, Valladoliden, Espainiako Kopako lehen proban parte hartuko du Hirumet Taldeak. ■ J.D.

Euskal Seleizioa goi mailan pistako lehiari

Durangaldeak pistako txirrindularitzan duen Cespa-Euskadi taldeko hainbat kidek parte hartu du Mallorkan jokatu den Espainiako Txapelketan Euskal Seleizioagaz, eta lan bikaina osatu dute.

Unai Elorriagak urrezko (scrath), zilarrezko (Madison) eta brontzezko (puntuazioan) domina bana irabazi ditu. Hodei Mazkianek urrezko bi eta zilarrezko bat jantzi ditu. Tania Calvo urrezko domina bi irabazi ditu, horietako bat Ana Usabiagaz abiadura proban. Usabiagak zilarrezko domina bat ere irabazi du. ■ J.D.

Aspaldiko partez sasoiko ekin dio ligari lurretakok

Behetik gora egin ohi du lurretakoren errendimenduak, baina aurten sasoi betean ekin diote denboraldiari Vazquezen gizonak



Hiru jardunaldi joan dira gorenean, eta lurretakok partida bi irabazi ditu. Kepa Aginako

Lurretakok aurten hasiera-hasieratik egon gura du goiko postuen borrokan. Normalean, Jon Gurutz Vázquez entrenatzaileak berak onartzen duenez, "gure liga hasierak ez dira hain onak izaten, eta bigarren itzulian egoten gara errendimendu betean". Aurten ez. Orain arte jokatuak hiru partidetatik bi irabazi dituzte, eta beste tean berdindu egin dute. Ondorioz, Ugao liderragaz zazpi puntura berdinduta daude.

Hasiera on horrek taldean "ilusioa piztu" duela dio Vazquezek: "Ondo hastea beti da garrantzitsua, eta hori ikusita goiko postuen borrokan ibiliko garen esperantza dugu".

"Gorenean pareko maila dago; Gabonetan hasiko da argitzen zein den igotzeko hautagai"

Hiru jardunaldi bakarrik joan direnez, ilusiotik eta esperantzatik haratago joatea ez da zuhurra, baina "orain egindako lana eta batutako puntuak beti dira baliagarriak liga amaiera heltzen denean". Orain aste bi, garaipen handia lortu zuten iaz

ohorezko mailatik jaitsi eta aurten igotzeko hautagai den Retuertoren kontra (1-0). Joan zen astean, aldiz, arerio ahulagoa den Trapagaranen zelaian bina berdintzea baino ez zuten lortu: "Gorenean maila oso parekatua dagoela erakusten du horrek". Dena dela, iurretarrak ez daude oso konforme epaileak Trapagaranen egindako lanagaz: "Zalantza bat penalti bat adierazi zuen, eta beraien bigarren gola joko kanpoko garbia izan zen".

Asteburuan Larramendi hartuko dute etxean, eta ez dago erlaxatzerik. Oraindik bide luzea dute egiteko. ■ J.D.

Hiru debutari Ciclos Iturriaga-Autos Elorrio ziklista taldean

Bost txirrindulariko taldea aurkeztu dute, hiru txirrindulari berrigaz

Kadete mailako nesken Ciclos Iturriaga-Autos Elorrio txirrindulari taldea aurkeztu dute. Iazko txirrindulari bik jarraitzen dute: Amorebieta-Etxanoko Olatz Agorriak eta Durangoko Goiaz Argoitiak. Kadeteen lehenengo

urteko beste hiru txirrindulari, berriz, berriak dira taldean: Lidia Sáez durangarra, Amaia León ondarrutarra eta Izaro Aurrekoe-txea igorretarra. Besteak beste, Bizkaiko Challenge eta Euskaldun Torneoa lehiatuko dituzte.

Bestalde, aurten arte talde honetan aritu diren Ziortza Isasi eta Aiala Buztintziariaga Durangoko Beste Alden ibiliko dira; Maite Deza, aldiz, Debabarrena taldean. Kadeteetatik gazte mailara igaro dira hirurak. ■ J.D.



Kadeteen taldea, Eneritz Iturriaga ziklista eta Iñaki Totorikagunea lurretako alkateagaz.

Gotzon Gomez
•Errugbi entrenatzailea



Munduko Errugbi Txapelketa

Hasierako fasea amaituta eta ezustekoak ezusteko, faboritoak heldu dira final-laurdenetara. Sorpresa handienak Irlandak eta Tongak eman dituzte. Irlandak Australia menderatu du (15-6), eta, gainera, hego hemisferiokoek entsegurik ez gauzatzea lortu dute. Tongak, aldiz, Frantzia garaitu du: 19-14. Hala ere, Frantziak aurrera egin du, bere herrialdeko adituek kritika latzak egin badizkiete ere. Zoriak ekarri du azken laurdenetan ipar eta hego hemisferioko taldeak ez nahastea. Hauek dira partidak: Irlanda-Gales (urriak 8, 07:00etan), Ingalaterra-Frantzia (urriak 8, 09:30ean), Hegoafrika-Australia (urriak 9, 07:00etan) eta Argentina- Zeelanda Berria (urriak 9, 09:30ean).

Iragarpenak egiten hasita, Gales, Ingalaterra, Hegoafrika eta Zeelanda Berria ikusten ditut faborito. Zergatik? Galestarrak oso indartsu eta ondo jokatzen ikusi ditudalako, eta Ingalaterrak esperientzia handia duelako horrelako lehietan. Gainera, oilarraren taldekoak txispa barik ikusten ditut.

Hego hemisferioan Australiak jokalaria ugari eta erabakiorrak lesionaturik ditu, eta Hegoafrikak, aldiz, azken unean beti egiten du gora, defentsa gogorrean oinarrituta. Amaitzeko, nire ustez faborito nagusia den Zeelanda Berriak, nahiz eta Dan Carter izarra lesionaturik egon, sekulako jokalariai ditu eta ez dut uste etxean hutsik egingo duenik.

Sorpresarik balego poztuko nintzateke, baina pena hartuko nuke 'all blacks'-ak kanporatuta, euren zalea naizelako. Goza dezagun errugbi onenaz Canal + katean edo Interneteko 'rojadirecta' webgunean. Eta, bidez batez; ondo ibili Sanfaustoetan!

Elorrio hasi eta amaitu nagusitu zen derbian

Euskal ligako derbian Elorrio Rugby Taldeak 78-15 menderatu zuen Durango Ilarduya



Elorriok airean erabili zuen Durango Ilarduya. Kepa Aginako

Emaitzak dena dio. Euskal ligako derbian, Elorriok ez zion aukera txikiarik ere eman Durango Ilarduya Bri (78-15). Elorriok orain arteko jardunaldi biak irabazi ditu, eta lider dago, Universidad Bilbao taldeagaz berdinduta. Durango Ilarduyak, aldiz, orain arteko norgehiagoka biak galdu ditu eta azkeneko tokian dago.

Hainbat faktorek eragin zuten partidaren azken emaitzan. Batetik, Durangoko taldea

16 jokalarigaz joan zen, eta horietako hainbatek lehenengo esperientzia zuten senior mailan. Horrez gainera, goraipatu beharra dago Elorriok erakutsitako maila. Talde indartsua osatu dute, eta igoera postuen borrokan ibiliko dela dirudi.

Bestalde, Durango Ilarduyako talde nagusiak 15-39 galdu zuen etxean, Hernaniren kontra. Bigarren jardunaldia urriaren 16an jokatuko dute Bartzelonan. ■ J.D.

Mailari neurria hartu ezinda hasi dira Sasikoa, Elorrioko eta Mallabia

Hiru taldeen artean orain arte jokaturako sei partidetatik bakar bat ere ez dute irabazi



Joan zen asteburuan Sasikoak bana berdindu zuen, etxean, Soloarteren kontra. K.Aginako

Gure taldeek liga hasi aurretik egindako iragarpenak betetzen dabiltza. Hirurek ala hirurek aurtengo deboraldira-ko helburu bakarra mailari eus-tea zela aipatu zutenean, susma-tzen zuten zerbait. Oraingoz liga hasi besterik ez da egin, baina lehe-nengo jardunaldi bietan gure tal-deek ez dute garaipenik lortu.

Sasikoak 3-2 galdu zuen estreinako partidari, Lauburu lbarrara eginiko bisitan. Mailaz igotzeko faborito nagusieneta-

koak direla kontuan hartuta, porrota ulergarria da; partida amaitzeko 15 segundoren fal-tan, bina zihoazen, gainera. Joan zen astean, ordea, huts egin

Sasikoak eta Mallabiak berdinketa bana lortu dute; Elorrioko ez da oraindino estreinatu

zuten Landako kiroldegian Soloarteren kontra (1-1).

Mallabia Hierros Servando bigun ibili zen defentsan lehe-nengo partidari, eta etxetik kan-pora sei gol sartu arren galdu egin zuten Sestaon (10-6). Joan zen asteburuan, kontrakoa gertatu zen; partida erabakitze-ko hamaika aukera huts egin zituzten, eta Egintzak hamar segundoren faltan lortu zuen hiru-nako berdinketa. Sasikoa eta Mallabia puntu batez

badaude Elorrioko Buskantza ez da oraindino horretan estreinatu. Gainera, partida bitan 16 gol jaso dituzte. Lehenengo jardu-naldian 3-9 galdu zuten Interna-cionalen kontra, eta bigarren-ean zazpi sartu zizkien Buruntzak.

Presion Break ondo

Beheragoko mailetan denetari-ko hasierak izan dituzte gure tal-deek. Presion Break taldeak garaipenagaz hasi du denboral-dia goren mailan; Abadiño-ko Lagunek galdu egin zuen Ibaiza-

Sapuberri-Elorrioko derbia durangarrek irabazi zuten (6-4)

balen kontra (7-4). Lehen erre-gionalean Sapuberri eta Elorrio-koren arteko derbia duranga-rrentzat izan zen (6-4). Dantxar-ik hiru puntuak ekarri zituen Basauritik, eta Abadiño-ko Gaz-tetxiek husna berdindu zuen.

Azkenik, emakumeen ligan Sasikoak oraindik ez du puntu-rik batu. Lehen jardunaldian 2-10 galdu zuen Alegria indar-tsuaren kontra, eta joan zen astean ere esku hutsik bueltatu ziren Muskizetik (4-2). ■ J.D.

Kulturalak Barakaldo liderra bisitatuko du

Kulturala bosgarren dago sailkapenean, 13 puntugaz, Beasain laugarrenagaz berdinduta

Durangoko Kulturalak sasoi betean ekin dio ligari, eta hiruga-rren mailan zazpi jardunaldi joan direnean, bosgarren daude.

Joan zen asteburuan Gerni-kak Tabiratik hiru puntuak era-man zituen arte, partida bakarra zuen galduta Mikel Agirrego-mezkortak zuzendutako taldeak; Laudioren kontra, 4-0. Gainera-koan, lau garaipen (Alaves B, Baskonia, Elgoibar eta Balmase-

daren kontra) eta berdinketa bat (Beasainen aurka) dituzte.

Asteburu honetan, oraindik partidarik galdu barik dagoen Barakaldo bisitatuko dute. Orain arte, bost partida irabazi eta bi berdindu ditu.

Hirugarren mailan play offe-tako gainerako hiru postuak Gernika, Portugalete eta Beasai-nentzat dira. Kulturalak Beasai-nek adina puntu ditu: 13. ■ J.D.

Cofidis taldeak fitxatu du Egoitz Garcia

25 urteko atxondarra Caja Rural taldetik Frantziako Cofidis taldera joan da

Egoitz Garcia 25 urteko atxon-darrak akordioa lotu du Cofidis-ekin, datorren denboraldian Frantziako talde profesionala-gaz lehiatzeko. Caja Rural tal-detik fitxatu dute.

Oraindino hile batzuk falta dira denboraldiari ekiteko, eta Garciak bere webgunean adie-razi duenez, "oso motibatuta eta ilusionatuta nago; denboraldia hasi dadin desiatzen nago,

Cofidis taldeari zein Eric Boye-rriri nigan ipini duten konfiantza errepidean erakutsiko dudan ahaleginagaz eskertzeko".

Hurrengo hileetan frantse-sa ikasten ere saiatuko dela dio, taldean ahalik eta arinen egokitzen saiatzeko. Talde berean korritzen du Luis Maté andaluziarrak ere, eta horrek ere taldera egiten lagunduko diola pentsatzen du. ■ J.D.

Agenda

FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

Elorrio - Gatika

Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden

GOREN MAILA

Berriz - Ugao

Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun

Iurretako - Larramendi

Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelain

BIGARREN ERREGIONALA

Abadiño - Lezama

Zapatuan, 17:00etan, Astolan

HIRUGARREN ERREGIONALA

Ezkurdi - Otxarkoaga

Zapatuan, 18:00etan, Arripasuetan

Extremefio - Berriz B

Zapatuan, 18:00etan, Tabiran

Zaldia B- San Ignacio B

Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian

ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Elorrioko - Meatzari

Domekan, 12:00etan, Elorrioko udal kiroldegian

GOREN MAILA

Abadiño-ko Lagun - Unta Ibarreko

Zapatuan, 17:15ean, Berrizburun

LEHENENGO ERREGIONALA

Elorrioko B - Iturriondo

Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian

Dantxari - Sumi Muguru

Zapatuan, 17:00etan, Lanbide Heziketako Institutuan

EMAKUMEEN LIGA

Sasikoa - Jesus Obrero

Zapatuan, 16:00etan, Landakon

SASKIBALOIA

LEHEN ERREGIONAL

BEREZIA

Tabirako - Anbotopeko

Barikuan, 20:00etan, Jesuitak ikastetxean

ERRUGBIA

EUSKAL LIGA

DRT B - Hernani

Zapatuan, 16:00etan, Arripasuetan

PILOTA

XXIV. OLAZAR TXAPELKETA

Lau t'erdian:

- Urlona (Markina) / Etxaniz (Gipuzkoa)

Binaka:

- Aitzelai (Arrigorriaga)-Peñas (Nafarroa) / Beltia (Usansolo)-Irusta (Munitibar)

Urriak 13, 21:30ean, Zaldibarren

R.P.S. 21408

A. Urreta podología

- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Adinara Urreta Jainaga

PODOLOGOIA

188. Elkargokidea

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea • 48200 DURANGO • Tel./Faxa: 94 621 54 04

Hurrengo eraikuntza

DURANGO

IURRETA

ZARATE ELEXPE

ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea • Tel.: 94 681 66 73

Iurreta • www.zarateyelexpe.com

Elorrion ere aukera onak

laguntzaileak



LAUHANKA[>]



Parasitoak,
kanpokoak zein
barrukoak, eduki
ditzake iguanak

Azaleko infekzioak
hezetasunagatik
sortzen zaizkio,
batez ere

Nutrizio arazo
nagusietako bat
kaltzio falta
izan ohi da

Iguanaren osasun egoera aztertzen, gaixotasunek txarrera egin aurretik

Edozein animaliaren jabe egiten garenetik, arreta handiz zaindu beharko dugu osasun aldetik. Iguanaren kasuan, maskota moduan hain ezaguna ez izatera, zaintzari garrantzia ematea komeni da.

Iguanaren egoera aztertzerakoan, hainbat ezaugarri izan beharko dugu kontuan, gerora ezustekorik edukitzea gura ez badugu. Hauek izan daitezke elementu garrantzitsu batzuk: nekatuta ote dagoen, jateari utzi dion, era arraroan portatzen den, zelako arnasketa erritmoa daukan, mukirik ote daukan sudurrean edo ahoan, zarata egiten duen arnasterakoan, eta begiak zabalik eta garbi badituen. Adituen arabera, gorotzak normalak diren eta sexu-organoak handituta edo ilunduta dauden jakitea ere pisuzko kontua da.

Parasitoak, kanpokoak zein barrukoak, eduki ditzake gure iguanak. Txarrenak kanpokoak

dira, normalean 6 mm-ko akaroak. Hain zuzen ere, akaroen kontrako produktuen bidezko tratamenduak dira egokienak gainetik kentzeko. Barruko akaroak agertzen badira, elikadura txarragatik izango da.

Hezetasuna

Azaleko infekzioak hezetasun handiaren eraginez, batez ere, sortzen zaizkio iguanari; higiene faltagatik ere agertu daitezke. Garbitasuna eta eremu lehorra ezinbestekoak dira, beraz.

Bestalde, iguanak batzuetan azala belzten dion gaixotasun bat izan dezake, hanka edota buztanetik hasi eta gorputz osora hedatzen doana. Arazo

hau kutsagarria da, eta beharrezkoa da animalia isolatzea, egun batzuetan behintzat.

Kaltzio falta

Nutrizio arazo nagusietako bat kaltzio falta izan ohi da iguanetan. Gazteen kasuan atzeko hankak handituko zaizkiolako igarriko diogu arazoa; nagusietan, osteoporosi eta osteodistrofia eritasunak sortzea ekar dezake. Bere dietan kaltzio gehigarriak sartu beharko ditugu osatzeko.

Arnas-aparatuko infekzioak tenperatura hotzetan luzaroan egoteagatik sortuko zaizkio; muki asko eta begiak itxita edukitzea dira sintomak, esaterako.



Euskarazko komunikabideak **DENON BEHARRA**

**Duten garrantziaz jabetzeko,
faltan izan arte itxoiten dugu maiz**



**EUSKARAZKO
HEDABIDE
EZ PUBLIKOAK**



anboto.iragarkilaburrak.com

Interneten eta paperean, doan: Erregistratu zaitetz, www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia edo bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23. **Paperean, ordainduta:** Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonon.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Abadiño. Etxebizitza ia berria salgai. 4 urte. 2 logela, 2 komun, sukaldea (eskegitokia), balkoia, garajea eta trastelekua. Negoziagarria. Tel.: 615-00 72 16

Atxondo. 75 m2. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, balkoia. Oso eguzkitsua. Kanpora ematen du etxe guztiak. Berriztatuta eta altzairuz hornitua. Deitu konpromiso barik eta ikusi. 180.000 euro. Tel.: 655-73 74 47.

Atxondo. 82 m2. 3 logela, sukaldea, egongela ederra, komuna. 2 balkoi. Ganbara eta igogailua. Oso eguzkitsua. Kanpora ematen du etxe guztiak. Berriztatuta eta altzairuz hornitua. Deitu konpromiso barik eta ikusi. Tel.: 628-78 78 35

Berriz. Berrizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Egoera ezin hobean. Tel.: 647-77 73 92.

Durango. Pisua salgai Muruetatorren. 90 m2. Sukaldea eskegitokiarekin, egongela, balkoia, 3 logela, 2 komun (bat logela barruan). Guztiz berriztua (ateak, leihoak, horma-armairuak...) eta jantzia, eguzkitsua, bista eta kokapen ederra. Ganbara eta garajea. Tel.: 686-13 89 09.

Durango. 98 m2-ko etxebizitza oso eguzkitsua; 3 logela, sukaldea-jangela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza partikular (12 m2 eta 8 m2-koak) eta baita terraza komunitarioak ere. Altzariz bete eta guztiz jantzia, bero-gailuaren galdara jarri berria, hormako lau armairu, aluminozko leihoak, atea eta zoru aldatuta. Garaje eta igerilekuarekin. Tel.: 655-70 46 84.

Durango. Durangon 94 m2-ko etxea salgai, Herriko Gudarien plazan (osasun etxe zaharren aurrean). 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, egongela ederra, ganbara eta garajea. Kokapen oso ona, etxe eguzkitsua eta bista ederrekia. Prezioa: 330.000 euro (55 milioi). Tel.: 615-76 08 01.

Durango. Atiko zoragarri bat dugu salgai Durangoko Alde Zaharrean. Erabat berriztatuturik dago, duela bi urte. Erabat jantzia. Gas instalazioa egin berri dugu. Oso argitsua da. Tel.: 659-42 58 90. aotxotorena@yahoo.es

Durango. Atiko zoragarria salgai Durangoko Alde Zaharrean. Erabat berriztatuturik dago, duela bi urte. Erabat jantzia. Gas instalazioa egin berri dugu. Oso argitsua da. Tel.: 659-42 58 90. aotxotorena@yahoo.es

rraen. Eguzkitsua eta bista ederreko terraza handiarekin. Kalefakzioa eta aire egokitua. Igogailurik ez. Zaharberrituriko eraikina. Tel.: 665-94 46 74

Durango. Etxea salgai Durangon, hiru urte ditu. Bi logela, bi bainugela, egongela, sukaldea eta 90 m2-ko terraza handia. Etxearekin batera, 28 m2-ko garajea salgai. Tel.: 637-41 64 38

Durango. Pisua salgai Sasi-koa kalean. 3 logela, komuna eta egongela-jangela handia. 2 balkoi. Kalefakzioa gas naturalarekin. Garajea eta ganbara. Prezio ezin hobea. Tel.: 679-38 23 69

Elorrio. Elorrrion 65 m2-ko etxebizitza berria salgai Buzkantz kalean. 2 logela, komun bat, sukalde-egongela eta ganbara ederra. Igogailua dauka eta prest dago bizitzera sartzeko. Kokapen oneko etxe polita eta eguzkitsua. Prezio ona. Tel.: 94-682 12 34.

Elorrio. Elorrrion dagoen babes ofizialeko etxebizitza trukatzen Durangoko kide baten bila nabil. etxea2011@yahoo.es

Elorrio. Elorrioko erdialdean kokatua dagoen etxebizitza salgai. 2 logela eta 2 bainugela. Tel.: 634-45 72 01

Elorrio. Etxebizitza berria erdialdean. 2 logela, 2 bainugela, sukalde ekipatua. Igogailua. Trastelekua. Aukera ona. Tel.: 657-79 39 93

Mallabia. Baserria eta 20.000 m2-ko lur zatia, oso egokia mahasti bat jartzeko, salgai, Mallabian. Kokapen ona. 330.000 euro. Tel.: 655-70 26 47 (20:00-22:00 bitartean deitu). Negoziagarria. Baserriak hormigoizko estruktura du eta toki oso politetan dago, bista ederrekin.

Otxandio. Apartamentu jantzia salgai. Garaje eta trastelekuarekin. Tel.: 675-71 72 83

Zaldibar. Zaldibarren 300 m2-ko baserria berriztuta. 24.000 m2-ko lursaila. Oso eguzkitsua. Negoziagarria. Tel.: 625-70 59 97.

Zornotza. Etxebizitza salgai Euban. 3 logela, egongela bat, sukaldea, 2 bainugela, ganbara eta berogailua. 345 m2-ko lursailarekin. Aukera paregabea. Tel.: 695-70 18 58

EROSI

Durangeldea. Baserria erasiko nuke Durangeldean, lursail apur batekin. Ez du inportatzer egoeran dagoen (erformatu behar bada, etab.).

Prezioa: 250.000 euro (negoziagarri). Tel.: 618-936 214.

ERRENTAN EMAN

Abadiño. Pisu bat alokatzen da Abadiñon. Tel.: 661-45 24 73 (lro)

Elorrio. Pisua alokagai. Harremanetan jartzeko deitu ondorengo telefono zenbakira: 695-782 786.

ERRENTAN HARTU

Durango. Bikote arduratsua alokairuko pisu baten bila Durango edo inguruetan. Tel.: 617-86 00 55

PISUA KONPARTITU
PISUKIDE BILA

Durangeldea. Pisua konpartitzeko lagun bila nabil (emakumea nahiago). Tel.: 688-67 86 90

Durango. Logela bat alokatzen da komun pribatuarekin lbaizabal auzunean. Tel.: 652-86 57 80

Durango. Pisukide bila nabil, Durangon. Tel.: 605-77 03 57.

Durango. Pisua konpartitzeko lagun baten bila nabil Durangon. 2 komun, 2 logela, 2 egongela eta sukaldea konpartitzeko. Tel.: 650-73 87 24

LOKALAK
SALDU

Elorrio. 360 m2-ko pabilioia salgai Elorrioko industrialdean. Tel.: 634-45 72 01

Elorrio. 950 m2-ko pabilioia salgai Elorrioko industrialdean. Tel.: 634-45 72 01

GARAJE/ TRASTEROAK
SALDU

Berriz. 42 m2-ko garaje itxia salgai. Ate automatikoa. Ur eta argi instalazioak iaz eginda. Komuna eta bodega txiki bat. Txoko txikia sukaldeagaz. 2 edo 3 kotxerentzako lekua. Tel.: 615-75 21 36

Durango. Trastelekua salgai Astepe auzunean (Durango). 18 metro karratu eta bi altuera, leihoa eta ate berria. Prezio interesgarria. Tel.: 665-70 75 35.

Durango. Itxitako garajea salgai Tronperri kalean, erdialdean. Tel.: 628-78 78 35

Elorrio. Kotxea gordetzeko garaje bila zabilta? Berriotxo kalean baduzu horretarako aukera! Garaje itxia salgai. Tel.: 658-75 92 64.

Elorrio. Garaje itxia salgai

Elorrio erdialdean. Tel.: 660-45 87 56.

ERRENTAN EMAN

Durango. Garaje itxia alokagai San Ignazio auzunean. Tel.: 94-681 25 10.

Durango. Montebideon (ertzaintza alboan) 26 m2-ko garaje itxia errentan ematen da. Interesatuok deitu 656-76 76 06 telefonora.

Durango. Durangoko Antso Estegiz kalean garajea alokagai. Tel.: 690-18 91 68

GAINERAKOAK
SALDU

Mundaka. Bermeoko portu komertzialetik 300 metrora dauden industria-nabeak salgai, Mundakan. Bulegoetarako baliagarriak. Hainbat tamaina eta prezio. Negozia daiteke. Kontakturako: 616-936 343.

Teknologia
INFORMATIKA/ BIDEOJOKUAK
GAINERAKOAK

Ordenagailuak konpontzen ditut. Hardware eta software. Ordenagailuak konpontzen ditut. Etxez etxe joaten naiz konpontzen. Konfiguratu, birusak kendu, periferikoak ipini eta abar. Arin eta merke! Tel.: 650-17 22 85.

AUDIOA/BIDEOA/ ARGAZKILARITZA
SALDU

Autorako radio mp3 salgai. Autoarentzako radio cd/mp3/wma pioneer deh4700mpb salgai. Erabili gabea. Deitu: 636-271 508.

GAINERAKOAK
EMAN

Bidali zure ordenagailua Boliviara. Bidali zure ordenagailua Boliviako eskoletara. Ordenagailua hondatuta badaukazu, zaharra bada edo zaborretara bota behar baduzu, nik jaso, konpondu eta kainaberaren bitartez bialduko dugu Boliviako bigarren mailako eskoletara. Tel.: 655-71 76 66.

Lana/negozioak
LAN ESKARIAK
OSTALARITZA

Durango. Neska gazte euskalduna, tabernari lanak egiteko prest, goizez zein arratsalde. Interesatuak deitu: 615-71 62 32.

Durango. Neska gazte euskaldunak bere burua eskaintzen du tabernari lanak egiteko, astean zehar goiz zein arratsalde, eta baita asteburuetan ere. Esperientziaduna. Interesatuak deitu: 615-71 62 32.

ruetan ere. Esperientziaduna. Interesatuak deitu: 615-71 62 32.

ETXEKO LANAK

Abadiño. Etxeko lanak egiteko zein nagusiak zaintzeko andrea. Esperientzia handia, informeak eska diezadazkezu noiznahi. 59 urte ditut eta ordutza zein lanaldi erdian lan egiteko prest nago. Irailetik hasita. 655-71 72 63

Durango. Neska gazte bat arratsaldetan garbiketa lanak egiteko prest dago. Interesatuak deitu 615-71 62 32 telefonora.

PERTSONAK ZAINDU

Durangeldea. Neska euskalduna, fisioterapia diploma. Durangeldean etxetik etxetik errehabilitazio (fisioterapia) traumatologikoa, neurologikoa, drenaje linfatikoa, masaiak, etab. Egiten ditut, pertsona bakoitzaren beharretara egokituta. Orduetegi malgua, goizez zein arratsalde. Interesatuak deitu 635741515ra.

Durango. 21 urteko neska euskalduna naiz eta umeak zaintzeko prest nago. Umeak oso gustoko ditut eta magisteritza ikasten nago. Gainera umeekin esperientzia zabala daukat irakaskuntzan zein kirol guneetan. Goizez zein arratsalde zaindu ahalko nituzke eta beharrez gero, etxeko lanak egiteko prest ere banago. Nirekin kontaktuan jarri nahi duenak, 660252793 zenbakira deitu. a_aldekoa_90@hotmail.com.

Durango. Lan bila nabil etxeak garbitzeko edo umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 696-75 35 30

Durango. Pertsona nagusiak zaintzeko lan bila, interna edo externa modura, ordutza zein gaez. Esperientzia askorekin eta erreferentziekin. Tel.: 603-95 41 94

Durango. Psikologian lizentziatua. Durangoko neska euskalduna naiz eta prest nago irailaren 20tik aurrera umeak ordutza zaintzeko, goizetan zein arratsaldetan. Interesatuak deitu telefono honetara: 646-53 83 90

Durango. Andre euskalduna haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 659-08 81 85

Durango. Psikologian lizentziatua. Durango neska euskaldun bat naiz eta prest nago irailaren 20tik aurrera umeak ordutza zaintzeko, goizetan zein arratsaldetan. Interesatuak deitu telefono honetara: 646-53 83 90

Durango. Andre euskalduna

naiz eta pertsona nagusiak, gaixok, ezinduk... zaintzeko prest nago. Urte askoko esperientzia daukat, eta lehenbait lehen hasteko prest nago. Interesatuak deitu 699-74 57 23 telefono zenbakira.(ines)

Durango. Neska euskalduna umeak zaintzeko, etxea garbitzeko zein pertsona nagusiak zaintzeko prest. Kotxea-ekin. Tel.: 664-14 69 04.

Durango. Neska gazte euskalduna haurrak zaintzeko prest, goizez zein arratsalde. Haur hezkuntzako goi mailako teknikari titulua. Interesatuak deitu: 615-71 62 32.

Durango. Emakume arduratsua bere burua eskaintzen du ordutza eta externa bezala lan egiteko: umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko, etxeak, taberna garbitzeko eta antzekoetarako. Tel.: 670-67 46 41 (Juana).

Durango. Neska gaztea, etxeko lanak egiteko, umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko prest. Venezuelako neska bat naiz baina euskal herrian guztiz integratua. Esperientzia handia dut umeekin eta pertsona nagusiekin. Tel.: 667-07 45 34.

Durango. Emakume arduratsua pertsona nagusien edo umeen zaintzarako eta garbiketarako lan bila. Esperientziarekin. Tel.: 697-12 64 38

Durango. Umeen edo pertsona nagusien zainketarako zein garbiketa lanetarako lan bila. Jardunaldi osoan, erdian edo ordutza. Esperientzia eta erreferentziak. Tel.: 638-43 79 01

Durango. Emakume arduratsua, esperientzia eta erreferentzia onekin pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. Interna edo externa modura. Ordutza, jardunaldi erdi edo osoan, asteburuetan edo gaez. Paperekin. Tel.: 628-00 22 17

Durango. Pertsona nagusiak zaintzeko lan bila, astelehenetik ostiralera, 13:00etatik 20:00etara. Erreferentzia onak. Tel.: 650-61 01 94

Durango. Neska euskalduna goizez lan egiteko prest. Umeak eskolara eramane eta etxeko lanak egiteko prest nago. Magisteritza ikasten nabil eta umeekin esperientzia handia daukat. Neure kotxe ere badaukat. Nirekin kontaktuan jartzeko deitu 660-25 27 93.

Durango. Umeak zein nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lan bila. Esperientzia daukat. Ordutza, jardunaldi osoan edo erdian. Tel.: 616-30 04 15.

Durango. Neska gazte euskalduna haurrak zaintzeko prest, goizez zein arratsalde, haur-hezkuntzako ikasketak burutua. Esperientziaduna. Interesatuak deitu: 615-71 62 32.

Elorrio. Neska gaztea eta euskalduna naiz eta aste barruan, goizetan, umeak zaintzeko prest nago. Haur hezkuntza ikasi dut. Umeekin esperientzia badaukat, eta autoa ere bai. Lanerako prest nago. Tel.: 626-19 68 85.

Elorrio. Aupa! Haur hezkuntzako titulua duen neska euskalduna naiz, eta prest nago astelehenetik ostiralera goizez zein arratsalde umeak, Elorrrion, durangon nahiz matienan zaintzeko. Informazio gehiago nahi izanez gero, 666-19 75 68 telefonora deitu.

Elorrio. Haur hezkuntzako irakaslea naiz. 2011 - 2012 ikasturteari begira, prest nago durangon, elorrrion, matienan nahiz abadiñon umeak zaintzeko. Orduetgia honako hau izango litzateke: goizean nahi den ordutik 13:00etara, eta arratsaldean 16:00etatik nahi den ordura arte. Arazorik edo dudaren bat edukiz gero, 666-19 75 68 telefonora deitu. Eskerrik asko!

Elorrio. Haur hezkuntzako hezitzailea, astelehenetik ostiralera umeak zaintzeko prest. Ez zait inporta goizez edo arratsalde izan, denetarako prest nago etal. Informazio gehiago nahi izanez gero, 666-19 75 68 zenbakira deitu, arazorik gabe.

Elorrio. Haur hezkuntzako ikaslea arratsalde umeak zaintzeko edo tabernan lan egiteko prest. Kotxearekin. 14:30etik aurrera. Tel.: 665-72 52 62.

IRAKASKUNTZA

Durangeldea. Psikologo euskalduna ikasketarako arazotan laguntzeko prest. Ikasketa teknikak era eskaintzen dira. Tel.: 679-38 23 69

Durango. Atzerriko hizkuntza ikasten ari den neska, ingeleseko klase partikularak emateko prest dago, mutil edo neska gazteei. Esperientzia adin desberdineko umeekin. Printzipioz klaseak bana-ka emango nituzke, baina nahi izanez gero, kopurua handituko litzateke. Nirekin kontaktuan jarri nahi duenak, 660252793 telefonora deitu. a_aldekoa_90@hotmail.com.

Durango. Neska gazte euskalduna klase partikularak emateko prest. Magisteritzan diplomatu eta lanean esperientzia duena. Deitu: 678-86 89 42 (Amaia)

Durango. Informatika goi mailako zikloko irakaslea, informatikako oinarriko eza-gutzak, ofimatika tresnak, argazki kudeaketarako programak, blogak nola sortu eta abar irakasteko eskola partikularak emateko prest. Presentziala edo online (moodle plataforma bidez). Dbh 4. mailara arteko ikasleei edo zein materiaren erreformtzu eskolak emateko prest. Kontakturako: infordurango@gmail.com (edurne)

Durango. lurretako, durangoko zein matienako haurrei/gazteei zuzenduta daude klase partikularak. Neska gazte euskalduna naiz, durangokoa. Aurtan, 2. Batxilergoa egiteari ekingo diot eta jadanik esperientzia izan dut, ume zein gazteekin. Hauekin mintzatzerako orduan, euskaraz zein gaztelera izan daiteke. Horrez gain, klaseak banaka, binaka zein hiruak izango direla aipatu behar dut, adinaren arabera. Interesatuak 627-210 570ra deitu.

Durango. Enpresa ikasketak ikaslea lehen eta bigarren hezkuntzan klase partikularak emateko prest. Tel.: 645 731 193. Eskerrik asko!

Durango. Magisteritza ikasten dabilen eta aurrez umeekin tratatu zuzena eduki duen neska gaztea umei klase partikularak emateko prest. Edozein irakasgaitan laguntzeko prest. Bakarka edo taldeka izango lirateke. Interesatuak deitu: 660-25 27 93. a_aldekoa_90@hotmail.com.

Durango. Goi mailako ikasketak dituen neska euskalduna klase partikularak emateko prest. Tel.: 645-72 03 91

Durango. Neska euskalduna klase partikularak emateko prest. Asteazken zehar eta baita asteburuetan ere. Esperientzia handikoa. 653-71 24 60

Durango. Fisika, matematika, marrazketa teknika, kimika,... Fisikan lizentziatua naiz eta klase partikularak ematen esperientzia dut. Astelehenetik larunbatera, goizez 14:00ak arte, eta igandetan egun osoa libre. Tel.: 646-65 65 89 (lagoba)

Durango. Sorterriz ingelesean irakaslea, esperientziaduna eta trinity college certtesolak kualifikatua, ingeleseko klase partikularak emateko prest. Hizketaldi pertsonalizatuak. Oinarriko eta goi maila, zure beharretara egokituta. Banakako klaseak edo talde murriztuak. Arrazoizko prezioak. teignvalleyenglish@gmail.com. Tel.: 635 26 62 51 (Tristan Deane)

Ekimen interesgarri batetan zaude?

Argazki kamera edo mugikorra gainean daukazu?

Bialdu zure bideo edo argazkiak:

agenda@anboto.org helbidera edo ekar itzazu lurretan, Bixente Kapanaga 9an dugun egoitzara

Izan zaitez zu argazkilari

GAINERAKOAK
Berriz. Mutil gazte batek bere burua eskaintzen du lo-razaintza lanak egiteko. Tel.:652-72 38 69. Deitu ara-zorik gabe.
Bilbo. Negozio txiki eta er-tainetarako kontrol-panela-dun web atari profesionalak egiten ditut azken belaunaldi-ko teknikak erabiliz. 5 urteko esperientziadun programa-tzaile/diseinatzaile gaztea eta euskalduna. Online dendak, blogak, foroak, katalogoak, diseinu anitzak (panfletuak, menuak, paperezko katalogo-ak...) nahi duzuna, nahi duzu-lal! lan egiteko gogoak, gertua eta serioa. Nirekin kontakta-tzeko: 662 143 692
Durango. Neska gazte eus-kaldunak bere burua eskain-tzen du arratsaldez orduka lan egiteko, astelenetik ostirale-ra, haurrak zaintzeko, garbi-keta lanak egiteko edo denda-ri bezala lan egiteko. Interesa-tuak deitu telefono honetara: 615-7162 32.
Durango. Altzarien mun-taian, igeltserotzan zein elek-trizitate lanetan jarduteko prest. Esperientzia hiru espa-rruetan. Tel.: 620-02 97 00
Durango. Neska gazte eus-kalduna etxeko lanak egin, haurrak zaindu, klase-parti-kularrak eman, tabernari la-nak egin edota garbitzaile la-nak egiteko prest. Interesa-tuak deitu: 615-7162 32.
LAN ESKAINTZAK
OSTALARITZA
Elorrio. Sukaldaria behar da elorrioko jabetxe baten. Tel.: 695-70 05 99.
ETXEKO LANAK
Durango. 40-55 urte ingu-ruko emakume euskaldun bat nahi dugu, goizetan umea es-kolara eraman eta asteen pare bat aldez etxeko lanak egiteko. Durangon. Tel.: 650-664 151
lurreta. Andre euskaldun baten bila gabilta, umeak es-kolara eraman eta asten pare bat bider etxeko lanak egite-ko, lurretan. Tel.: 677-98 43 06.
PERTSONAK ZAINDU
Durango. Pertsona euskal-duna behar da ume bi zaindu, ikastolara eraman eta etxeko lanak egiteko. 651-70 96 76
IRAKASKUNTZA
Durungaldea. Batxilergoko marrazketa teknikoko klaseak emateko durungaldeko per-sona bat behar da. Ingenieri-tzako edota arkitekturako ikaslea edo lizentziatua. Tel.: 655-7175 27
Durungaldea . Neska eus-kalduna behar da letretako batxilergorako laguntza kla-seak emateko etxean. Tel.: 605-76 72 58

GAINERAKOAK
Arrasate. Arrasateko en-presa batek honakoa behar du: saltzaile laguntzailea. Ku-txetan fruituak ipini. Kuxtak manipulatua. Eskariez ardura-tu, fakturak egiaztatu. Beze-roei arreta zerbitzua eskeini, dendaren garbiketa,... Ezin-bestekoa: gaztelania menpe-ratu, diruaren kontrola, ordu-tegi malgutasuna eta zonal-dean bizitzea. Lanaldi osoa astelehenetik ostiralerara: 3 txanda 7:15-14:15/14:15-21:15/zatitua 7:15-13:00 eta 19:00-21:00. Larunbatetan 8:00-14:30. Kontratua: aldi baterako. Berehala hasteko. Urteko soldata gordina, gutxi gora behera: 14.694 x 14 paga. Sartu. Erref.:9437. Tel.: 94-620 04 49
Arrasate. Sukalde eta elek-trogailluak saltzen dituen en-presak esperientziadun per-sona bat behar du salmenta lanerarako. Berehala hasteko. Tel.: 635-73 15 73
Bergara. Bergarako enpresa batek honakoa behar du: ase-guru agente eskuluboa (ko-merztziala). Aseguruak sal-tzea eta bezeroen zorroz ar-duratzeko. Ezinbestekoa: derrigorrezko bigarren hez-kuntza edo lh edo titulazio handiagoko, jendearen arre-tarako lanpostuetan edo ko-merztzial lanetan esperientzia izatea, gidabaimena, autoa eta debagoienan edo urola garaian bizitzea. Lanaldia: osoa, zatitua. Kontratua: merkantila. Berehala haste-ko. Hileko soldata gordina, gutxi gora behera: 1000 euro. Sartu. Erref.: 8686. Tel.: 94-620 04 49
Durango. Durangoko en-presa batek honakoa behar du: estetizista/masajista. Es-tetizista lanak egitea, masa-jeak eta bezeroen arreta. Ezinbestekoa: esperientzia, durungaldean bizitzea, ardu-raduna izatea, iniziatiba iza-tea, egoten jakitea, jendeta-suna izatea eta erretzailea ez izatea. Lanaldi osoa. Ordute-gia: 10:00-13:00 eta 16:00-21:00, astelehenetik ostirale-ra eta 09:00-14:00 larunba-tetan. Kontratua: probaldia, epemugarik gabe izateko au-kerarekin. Berehala hasteko. Soldata: hitzarmenaren ara-bera + pizgarriak (baloratu egingo da). Sartu. Erref.: 8766. Tel.: 94-620 04 49.
Durango. Durangoko en-presa batek honakoa behar du: ileapaintzailea. Ileapain-degi baten lan egiteko ofizial bat eta laguntzaile bat behar dira. Ezinbestekoa: (ofizialak) heziketa eta esperientzia, (la-guntzaileak) heziketa eta du-rungaldean bizitzea. Egokia den lanaldia. Kontratua: aldi baterako baina luzatu daiteke. Berehala hasteko. Soldata: hitzarmenaren arabera.ko. Sartu. Erref.: 8941. Tel.: 94-620 04 49
Durango. Ileapaintzailea behar da iunik ileapaindegian, durangon. Beharrezkoa: es-perientzia. Euskaraz jakitea

baloratuko da. 94-62164 91
Durango. Durangoko en-presa batek honakoa behar du: content manager (edu-kien argitaratzailea). Aholku-laritzza proiektu bat burutze-ko, sektore turistikoa izuzen-dutako sare publikoaren edukien kudeaketan inberti-tzea erabaki duten bi bezero garrantzitzuentzako. Ezin-bestekoa: sare publikoan eta honekin bat datorren barne kudeaketan esperientzia eta ezagutza egiaztagarria. Ne-gozio, marketing eta estrate-gia planak egiteko esperien-tzia eta adimena duen pertso-na. Lanaldia: osoa zatitua. Ordutegia: 9:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 18:00etara. Kontratua: 6 hil-erako baina luzatu daiteke. Berehala hasteko. Soldata: hileko soldata gordina, gutxi gorabehera: 2000 euro. Sar-tu. Erref.: 9928. Tel.: 94-620 04 49
Durango. Durangoko en-presa batek honakoa behar du: aseguru-merkataria. Be-zeroak erakarri eta bezeroen zorroa mantendu. Ezinbeste-koa: diplomatua, esperientzia komertzial lanetan eta zonal-dean bizitzea. Lanaldi osoa. Kontratua: merkantila. Bere-hala hasteko. Urteko soldata gordina, gutxi gorabehera: 24.000 euro. Sartu. Erref.: 8484. Tel.: 94-620 04 49
